



XII. urtea - 143. zk. 2004ko azaroa

**QED**  
GASTEIZKO  
EUSKALDUNON  
ALDIZKARIA

# Uskara Ahora

Etxabarrengoa (R)

**Euskal Herria, Araba irudiz.**  
**Ruben Argote**


**Hamabost zauri. Karmele Jaio**

**Joxean Sagastizabal:**  
**Kutsidazu bidea, Ixabel filma**

**Caballito, urtebete greban**

**Ika. 15 urte**

**XIX. mendeko Gasteiz**



# mantangorri

rekin



**8 DVD**  
euskaraz

## Zinema etxean


urriaren **23**tik aurrera  
asteburuetan BERRIAREKIN

1. Ipar Haizearen Erronka
2. Annaanna
3. Martina eta xagutxoak
4. Baloia
5. Ipar Haizearen Itzulera
6. Rudy Txerritxo
7. Yolanda eta Arroza Beltzaren Sekretua
8. Gezi Urdina



+ 2,90 €

Babeslea:



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Euskaldunok behar dugun

**berria**

GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992)  
Geu aldizkariko taldeak egina, bideratua eta kudeatua

Erredakzioa:  
Pedro Asua, 2 - 3.a. - 01008 Gasteiz  
Tfnoa. eta Faxe:  
945 22 21 53  
e-mail:  
geugaste@grn.es


Zuzendaria:  
estitxu breñas glz. de zarate  
Aldizkariko batzordea:  
josune velez de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estitxu breñas eta david alvez  
Kazetariak:  
josune velez de mendizabal, edurne begiristain, saioa fdz. de arangiz  
Argazkiak:  
edorta sanz  
Bestelako irudiak-bilaketa:  
estitxu breñas glz. de zarate, david alvez  
Testuen zuzenketa-orraketa-osaketak:  
estitxu breñas glz. de zarate  
Itzulpenak:  
edurne begiristain, estitxu breñas, aztiri

Maketa:  
patirke sanz eta david alvez  
logoa:  
io grafix  
komikia:  
iñigo sarasola  
Kolaboratzaileak ale honetan:  
gorka aginagalde, patxi zubizarreta, denon eskola, ana arregi, ruben argote, maite lekue, jon zubiaur, unai gartzia, xabier errasti, erlantz urtasun eta diocesanar-mendizorrotzakako ostalaritza eskola.  
Publizitatea eta Banaketa:  
edurne begiristain  
Sustapen-harpidetza saila:  
edurne begiristain, estitxu breñas glz. de zarate eta maite lekue  
Inprimategia:  
Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)  
Ale kopurua: 2.500  
LG: VI-582/92  
ISSN: 1133-0988  
Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago. Geu aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitako enrantzukizunik.

Laguntzaileak:



Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila



**GEU ALDIZKARIA** zure etxean jasotzeko bidea **HARPIDETZA** da.  
Urte osoko kuota: **18 euro**.  
(telefonoz - e-mailez)

**AHORIK-AHO**



**9-11**  
karmele jaio:  
"hamabost zauri"  
liburua



**12-13**  
joxean sagastizabal;  
"kutsidazu bidea, ixabel"  
filmara

**15**

ruben argote arabarraren diaporama ikusgai



**16**

euskaltasunean lagun: gorka blanco



**GAIKA**

**17-19**

caballito, urtebete greban



**20-23**

ika, 15 urte



**HAN-HEMENKA**

**-iritzia (4-6)**

- gorka aginagalde aktorea  
- patxi zubizarreta idazlea  
- denon eskola federazioa

**-kaleak dio (7)**

irakurtzeko ohitura

**-idazleen zutabea (7)**

ana arregi

**KULTURAI SIALDIARI SO**

**-AGENDA (24-25)**

**-HISTORIA ZERTZELADAK (26-27)**

Gasteiz XIX; apaiz eta militarren hiria. unai gartzia

**-ARTE TXOKOA (28-29)**

diseinua: ingrid arnal

**-BIDAIA (30)**

xabier errasti, 'jerras'

**-ARABA BIXOTZIAN (30)**

jon zubiaur

**-BERTAKOARI SO! (31)**

erlantz urtasun

**-ERREZETA (31)**

arroz gorrituzko tinbala, gainerretako otarrainskekin eta txingarreztatutako barazkiekin

**-GEUREKIN MENDIRA GAZTE TALDEA (32)**

**-GEU. ESKAINTZAK (33)**

**-KOMIKIA (34)**

**Azala ...**

Garraldan (Nafarroa) Ruben Argote argazkizale arabarrak ateratako argazkia, euskararen inguruko erakusketa bat zela-bide. Euskal Herria eta Arabari buruz bakarti baten begiradak jasotako argazkiez gozatu nahi izanez gero, hurbil zaitezte hilaren 23an, asteartearekin, 20.30ean, GEU aldizkaria eta elkartearen eskutik Perral tabernan Ruben Argotek eskainiko duen diaporama adierazgarria.



argazkia: © ruben argote

## ~Telebista arratsaldea~



◆ Gorka Aginagalde

Etxera heltzen naiz... ufi!, maleta askatzen dut, zapatak kendu eta banago. Etxera heldu!, batzuo nahi genukeen baino gutxiago erabiltzen dugun adierazpena. Esaldi xumea, bi hitz baino ez, aitzitik, aintzat hartzeko moduko esanahia duena. Zahartzen ariko ote naiz?... Ez!, eeeeez, inolaz ez!

Etxera heltzeak lansaioa amaitzea esan nahi du, zeure jabetzako lurretan babestu eta ziur sentitzea da, "norberak gogoko duena egitea", atsotitzak ondo dioen legez, erlajatzea, sakeleko telefonoa amatatzea, hozkailutik mokaduak hartu eta hatzak zurrupatzea, oroimen onak dakarzkizun abesti hori entzutea. Etxera heltzea presa barik dutzatzea da, zure bikoteari helduta etzatea eta ezer ez egitea... edo bai!, aspaldi amets egitera gonbidatu zintuen liburu horri hautsa kendu eta berriro ere irakurtzea, inor gogaitu gabe eta zu ere deseroso sentitu gabe zigarro bat erretzea, erregea sentitzea da... oso errepublikarra izan arren. Etxera heltzea "la ostia" da. Larehun kilometro gainean eta bi egunetan sei ordu baino ez lo eginda zaudenean, etxean honezkero ezin zaitzake inork eragotzi... edo bai?

Gure etxeko egongeletako buru den eta era desegokian familiakotzat hartzen dugun "totem" moduko zerbait dago. Kanpora begiratzen dion leiho txiki bat, zeinak mundua gure besaulki erosoetara biltzen digun, baina zer mundu mota saltzen digute? Benetakoa al da? Jende gehiena gai hauetaz kezkatzen al da?

Nik, ikusle gisa, ez dut sinesten. Eta gainera, amorrua ematen dit! Etxera heldu eta burmuinik ez badut irakurtzeko, musika entzuteko edota amodioa egiteko eta nahi dudana bakarria telebista ikusi bitartean zerbait janez entretenitzea bada, izugarri gogaitzen nau nahitaez ezagutu behar izateak Gran Hermano-koak zeintzuk diren (guztiak

ezagutzen ditut), edota nork eman dion musu bat ardiari "La Granja" lehiaketan, edo zenbat alditan deitu dion "De Late" k jipoitzaile "Lequio" ri, zenbat bularretako-ebakuntza dauzkan "Tamara" k, zer gertatu zen Ronaldoren urtebetetze jaiari (la ostia izan omen zen!), edo eskusiba batengatik nork norekin larrua jotzen duen. Ez dut sinesten! Ez dut uste (eta ez dut esaten nik batzuetan telebistan lan egin ohi dudalako... eta jarrai dezadan, jaten ematen baitit) garrasika eta denak batera aritzen diren eta hain gai ziztrinen inguruko debate (ja, ja!) horiek jasateko gai diren hainbeste mozolo dagoenik. Entzule-kopuruek trukaturik egon behar dute, bestela txarto goaz, oso txarto baina.

Gaur egun zilegi bada, esaterako, "Kiko" k (Gran Hermano-koa, guztiak ezagutzen ditudala aipatu dut arestian) beste norbait iraintzea inolako heziketa, irizpide, dokumentaziorik gabe, muturrik handienarekin!, ondoren "bizitzan egiazalea den jendeak egiten duena" delako aitzakiaz baliatuz, barkamena eskatu barik. Txarto goaz, baina oso txarto!

Nire lagun Maurok esaten zuen bezala: "Gaur egundoko izua hartu dut irratia entzutean. "Makelele" Espainiara itzuliko dela esan dute eta izurrite izugarria zelakoan nengoen. Ba hara non futbolaria den, baina jakina, Zapateroz mintzo direnean Zapatero Presidentea diote, Lucia Etxebarriaz Lucia idazlea... Nola demontre imajinatuko nuen "Makelele" delakoa futbolaria zela, futbolari gorrotoa baldin badiot?!

Triste da egun ezagutzen ez badituzu "Madri" taldeko hamaikakoa, G.H-ko lehiakideen izenak (nik bai, guztiak) eta P.Pk dauzkan presidente kopurua... badirudi (betiere entzule-kopuruen arabera) oso gutxi garela beste gai batzuei buruz mintzatzen garenak. Txarto goaz, oso txarto baina!

Agur, DVD bat ikustera noa (telebistan lan egiten jarraitzea espero dut).

## Goazen azokara

~Non frogatzen den sariak ere tristeak izan daitezkeela~



⇒ Patxi Zubizarreta

Goazen azokara dugu Teo saileko haurrentzako irudi liburuetakoko baten izenburua, duela gutxi erosi nuena. Baina liburuxkako irudiak irakurtzen hasirik, ohartu nintzen Teo, joan, jolas parke batera joan zela, eta ez azoka batera. Eta berehala ondorioztatu nuen jatorrizko liburuaren izenburua: *Vamos a la feria*.

Agian adibide hutsal hori aski zaigu itzulpenaren balioaz jabetzeko, eta hortixe segitzeko itzulpena ez dela jolasa, izan ere euskarazko argitalpenen kopuru handi bat itzulpena baita (Manu Lopez Gasenik -Euskarara itzulitako HGL: funtzioak, eraginak eta itzulpen estrategiak, Leioa, EHU- jakinarazi zigun, 1975-1985 bitartean, haur eta gazteentzako produkzioaren %75 itzulpena izan zela).

Ongi gogoan dut Iñaki Oyarzabal legebiltzarkideak, alderdi popularra aldundira zein udalera heldu zelarik, nola esan zuen harrezkero euskaltzale arabarrak harritu egingo zirela bere alderdiarekin, ordu arte euskara hitzetik hortzera darabilten nazionalista askok baino lan gehiago egingo baitzuten euskal kulturaren alde. Errezeloz bada ere, ezin ukatuko dut poztasuna hartu nuela asmo horren berri izatean. Hilabetea joan, hilabetea etorri, oster, nire usteak ez ziren ustel

gertatu, eta politikaren azokan merkekeria eta itsukeria nagusitu ziren.

Alabaina, behin batez, ezustea hartu nuen, eta hori ere ezin, bada, ukatu. Gasteizko udalak haur eta gazte literatur itzulpenak saritzeko lehiaketa abian jarri zuela jakin nuen, eta, zinez originala eta aurrerakoia iritzi nion. Patuak hala nahi izan zuelarik, *Printze Txikia* itzuli berria nuen eta, besteak

beste, horixe saritu zuten. Baina, egia osoa esan behar bada, nire bizitzako saririk triste-ena izan zen. Sari

banaketa guztiz oharkabean egin zen eta, gainera, orduko politikari popularrak, aurreneko eserlekuetan irabazleren baten seme-alabak ikusirik, pentsatu -eta esan- zuen haurren idazlan sariketa batera joana zela, eta tar-tar-tar, tar-tar-tar.

Hurrengo urtean epaimahairako deitu zidaten, eta nik neure poztasun etsituaren berri eman nuen. Guztiarekin, itzulpen gehiago aurkeztu ziren eta sari banaketa itxurosoa egin zen Goiuri jauregian, HGLko biltzar bat baliatuz. Baina politikarien azokan itzulpenak oso merke daude, eta, aukeran popularrek erakusketa akrobatiko koloretsuak bideratu eta proiektu handiusteak aldarrikatzea nahiago. Horrexegatik zokoratu bide dute pisu gutxirekin jaio den haurra dirudien sari aitzindari hau, eta zinez tamalgarria litzateke sari hau bertan behera geratzea, izan ere saria, finean, itzulpen bakoitza opari den neurrian, irakurleontzat baita.



© elena odriozola

## Udaleko haur eskolak eta 2?



✦ Juan Carlos Alonso Quilchano

Denon Eskola

Gustatuko litzaiguke artikulu hau gatazka honen inguruko bigarrena eta azkena izatea, baina zoritxarrez ez gara honen inguruan oso baikorrak.

Egoera konpondu gabe manten dadin eragiten egon daitekeen faktoreetako bat, Denon Eskolaren ikuspegitik, Vitoria-Gasteizko Udalak afektatutako familiekiko izan duen begirune falta izan daiteke. Gatazkako gatibuak izateaz gain, uneoro alboratuak izan dira, oinarrizkoena den informazioa ere ukatuz. Egia da Udala familiengana zuzendu dela birritan gutunen bidez gatazkaren inguruan oso modu partzalean informatuz, hainbat faltsukeria eta guzti. Eta hau ez da informazioa, manipulazioa baizik.

Hori dela eta Denon Eskolatik afektatutako familiak urriaren 5ean deitu genituen, eta haiekin batera konponbidea lortzeko ekarpenak egiteko prest zeuden eta gaiarekin zerikusia zuten parteak gonbidatu genituen. Horrela udala osotzen duten alderdi politiko guztiak gonbidatu genituen, Udaleko enpresa komitea, eta familiak Denon Eskolarekin batera. Gonbidatutako guztien artean ez zegoen bat: Udaleko Gobernu taldea, Alderdi Popularreko kidez soilik osoturikoa.

Bestelako alderdiek aukera izan zuten familiei haien gatazkaren ikuspegia eta irteera posibleak azaltzeko, modu zuzenean, bitartekaririk gabe. Baina horrez gain familien amorrazioa, oposizioak jokatu duen paperaren inguruko zalantzak eta familia askok bizi duten egoera partikularraren inguruko nondik norakoak entzun eta sentitu behar izan zituzten. Gehien entzundako esaldietako bat bileran "Zentsura mozioa orain!!" izan zen, EAJ eta PSOeri zuzendutakoa batez ere. Talde hauek haien zalantzak eta erreparoa adierazi zituzten neurri honen aurrean, eta

honekin argi gelditu zen Udaleko Haur Eskolen gaia ez dela udaleko panorama politikoan aldaketarik eragingo duena.

Pertsona batzuk zapore txarrarekin atera ziren bilera hartatik politikoen aldetik konponbideen ordez demagogia gehiegi aurkeztu zelako. Baliteke. Halere Denon Eskolarentzat garrantzitsua izan zen haiek bertan egotea haien proposamenak azaltzeko eta horrez gain modu zuzenean familiek bizi duten egoera ezagutzeko.

Baina Federazio honentzat ondoriorik garrantzitsuena ondokoa izan zen: hiritargoa zapaltzen denean, alderatzen denean edota erabiltzen denean mobilizatu egiten dela. Horregatik familien ondorengo mobilizazioak proposatzeko, antolatzeko eta koordinatzeko taldea eratzea erabaki zen. Helburua Udala eta Sindikatuen arteko negoziaketa behartzea.

Denon Eskolak eskolak zabaltzeko presionatuko du, eta horretarako beharrezkoa da Udala eta langileak akordio batera heltzea. Irainik suposatuko ez duen akordioa eta politikoki eta sozialki adostutako Udaleko Haur Eskola eredia definitzeko atea zabalik utziko duena, indarrean 2005/2006 ikasturtean sar dadin. Bitartean egungo eredia mantentzearen aldekoak gara.

Azkenik zera esan nahi diegu herritarrei, Udaleko Haur Eskola onak izatea oso garrantzitsua dela, Udalarenak ez alderdienak ez direla, gureak baizik, nahiz eta erabili behar ez izan. Askotan esan dugu: gaur eskolak dira, bihar gizarte etxeak izan daitezke, hurrengo batean gizarte zerbitzuak eta horrela elkarren segidan.

\*Artikulu hau akordioaren aurretik idatzi da

## Irakurtzeko ohiturarik?

Liburu bat, bidaia bezala, ezinegonaz hasten da, tristeziak amaitu.

**Jose de Vasconcelos**

Irakurketaren bidez, gizaki oren garaikide eta herrialde guztien biztanle gara.

**Houdar de la Motte**

Liburuak hausnartzen irakatsi zidaten eta pentsamenduak aske egin ninduen.

**Ricardo León**

- 1.-Irakurtzeko ohiturarik bai? Noiz eta non?
- 2.-Zein da liburu bat irakurtzeko erabiltzen duzun irizpidea?
- 3.-Gomendio bat.

### Aitor Durana, kazetaria

1) Ohitura gutxi daukat, urtean hiruzpalau liburu irakurtzen ditut, gutxi gorabehera. Lana dela eta, udara da irakurtzeko dudak sasoirik onena. Etxean bakarrik irakurtzea gustuko dut, arreta gehiago jartzen dudalako.

2) Batez ere lagunek gomendatutakoak hautatzen ditut, izan ere, beldurrezko generoa eta mitologikoa ditut maiteenak.

3) Patrick Suskinden "El Perfume", adibidez.



### Mercedes Rubio, langabetua

1) Bai, egunero lo egin baino lehen ohean irakurri ohi dut.

2) Liburu-saltzailea den lagun baten dendan begirada bat botatzen dut liburu bat aukeratu nahi dudanean. Horrez gain, El Pais egunkariko gehigarria ere erabiltzen dut. Autolaguntzako liburuak oso gustuko ditut.

3) "Dejame que te cuente", Jorge Bucay idazle argentinarrena.



### Leire Otxoa, ikaslea

1) Bai, autobusez bidaiatzen dudanean irakurtzeko aukera aprobetxatzen dut.

2) Asko gustatzen zaizkidan idazleak badituzte eta honen arabera hautatzen dut liburu bat edo beste. Paul Auster eta Gioconda Belli dira hoietakoz batzuk.

3) Paul Austerren edozein eta "Trilogia en Nueva York" bereziki.



Istorio kateatuen atalari amaiera eman genion aurreko alean. Hemendik aurrera idazleak zutabe honetan ariko dira gai desberdinen inguruan euren iritzia emanez alez ale. Oraingoan Ana Arregiri dagokio.

## Gasteizko lorategiak



♦ Ana Arregi

Txikitari bizi ginen etxe aurrean lorategi karratu bat zegoen. Guk bizikletaz jira eta bira ibiltzen ginen lorategiari inguruka. Lorategiari bueltak emanez ikasi genuen bizikletaz ibiltzen eta karratu haren ertzak, batez ere izkinak, arrisku handiko tokiak ziren guk bira egiten ondo ikasi arte. Gauza bat bizikletaz zuzen eta oztoporik gabe ibiltzea zelako, eta beste bat, lorategiaren ertz zorrotzari bira egitea lurrera erori barik. Lorategi haren ertz batean nebak burua hautsi zuen. Zauri luze bat ireki zitzaion bere hiru urteko buru txikian. Belarraren berdea eta kaleko baldosaren grisaren arteko ertz zuria odolez tindatu zen. Agian une horretan hasi zen hedatzen Gasteizko lorategiei diedan gorrotoa, baina gauza bat argi dago, ezin ditut jasan hiri honek lorategiak ixteko duen ohitura.

Parke handietan izan ezik (Prado, Arriaga, Aranbizkarra...), Gasteizko ia-ia lorategi guztiak zementuzko marra zuri batez daude inguratuta. Badirudi Udaleko arkitektoak beldur diola belarraren ahalmenari eta horrexegatik erabaki duela ondo markatzea noraino hel daitekeen lorategiko berdea. Seguruenez, arkitektoari galdetuz gero berak esango zuen oinezkoek diela beldurra, mugak ipintzen ez badituzte jendeak ez duela belarra errespetatzen. Baina ikusi besterik ez dago ertzerik gabeko parke handietan jendeak ez duela belarra hondatzen, gozatzen baino. Lorategi txikietan, ordea, jendeak egiten dituen bidexkak normalean lorategiko disenatzaileak kontuan hartu ez dituen jendearen joan-etorriengatik dira. Azken finean, lorategiak hiria apaintzeko jartzen dituzte, erabiltzeko eta gozatzeko bainoago.

**SARLU**

Zure arropa eta oinetakoak

www.sarludenda.com

Kutxilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710

**BARRA**  
TABERNA

Equeditan, astrolabiatik osatutako

**JANTOKI**  
**BEGETARIANOA**

SAN FRANCISCO XABIERKOAKEN KANTOIA, 4  
01001 - GASTEIZ  
TEL.: 945 27 65 53

**TXUKUNA**

EUSKAL HERRIKO EHUNAK:  
bainu-batak, oihalak,  
sukaldeko zapiak,  
patchwork ohe-estalkiak...

Nafarroako errege-erreginen kalea, 11

**HEGOALDE**  
Euskaltegia

Matrikula zaitetz !!

Jose Lejarreta 9 behea  
Tfnoa 945 28 41 96  
01003 GASTEIZ

**Xabier**  
taberna

musika ona  
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23

**Uetzal**

Hegoamerikako  
jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantziako kantoiko  
ortzean) Tfnoa: 945 25 03 52

**GEU**

GASTEIZKO  
EUSKALDUNON  
ALDIZKARIA

**PUBLIZITATEA**

945 22 21 53

**GORETTI**

**ILEPAINDEGIA**

Hedegile kalea (KORRE), 14  
(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ

Zure denda erotikoa

**SEX**

**PITILIN**  
**GORRI**

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ  
Tren geltokiaren ondoan  
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA  
OIARTZUN

Obren egite  
eta zuzentzea

**ALTUNA** Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"  
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ  
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobil: 639 81 51 30

**MIKO**

Izozkiak

bar • restaurante •  
**albéniz**

Errege atea, 9 • GASTEIZ

Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

**IZARRA TABERNA - JATETXEA**

BITORIANO - ZUIA (ARABA) • 945 430 073

**XIXILU**  
JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2

Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

**UZTINTZA**  
KERAMIKA TAILERRA

**KERAMIKA HERRIKOIA**  
**ETA BERRIA**

HEDEGILE kalea (KORRERIA), 120

Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

**IRVSTA** TABERNA

poteo eta pintxoak

Mateo Moraza 19  
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

**ESPEZIALITATEA:**  
Patata tortila • Otartekoak

**ITYRRIETA**

Sagardotegia

Arraga auzoa.

Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

OSTIRALETIK  
IGANDERA IREKITA.  
ASTEAN ZEHAR  
ENKARGUEN BIDEZ.  
ASTEBURUETAN:  
HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK

**EA**

eusko  
alkartasuna

www.ea-euskadi.com

arabarrok euskarari BAI

www.euskoalkartasuna.org

**GA**

gasteiz  
abertzaleak

www.gasteabertzaleak.com

**GEU**

GASTEIZKO  
EUSKALDUNON  
ALDIZKARIA

**HARPIDETZA**

945 22 21 53

Argazki - Estudioa

**Erramun**

Hercules Fourrier, 23  
Tfnoa: 13 71 02  
01006

Askatasun kalea, 5  
Tfnoa: 26 19 91  
01004

**Dalvez**  
argitarazleak

Tel./Faxa: 945 24 52 69  
Tfnoa: 652 77 65 09

dalvez@dalvezdiseinua.euskalnet.net

**BAR**  
**KLAKÉ**

KUTXA, 2  
TFNO.  
143883

GASTEIZ

**ARANBIZKARRA**  
ZURE

**AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16  
Tfnoa: 945 28 28 39  
01002 Gasteiz



Karmele Jaio:

**"Eroso sentitzen naiz barruko  
sentimenduez idazten"**

## hamabost zauri

**GIZON-EMAKUMEEN ARTEKO HARTU-  
-EMAN KORAPILATSUETAN MURGILDU  
DA KARMELE JAIO KAZETARI ETA  
IDAZLE GASTEIZTARRA BERE LEHEN**

**ELEBERRIAN. HAMABOST IPUIN.  
HAMABOST ISTORIO. IREKITA GERATZEN  
DIREN HAMABOST ZAURIREKIN  
DATORKIGU KARMELE LIBURU HONETAN.**

**- HAMABOST ZAURI IPUIN LIBURUA ARGITARATU  
DUZU. GIZA HARREMANAK ETA BIKOTE  
HARREMANAK DIRA LIBURUAREN ARDATZ.  
LABURTUKO AL ZENIGUKE ZER KONTATU  
DUZUN?**

Hamabost ipuin dira, eta beraien artean elementu komun bat dute, hots, guztietan zauriren bat agertzen dela. Hau da, pertsona bati egoera batek edo beste pertsona batek eragindako zauria. Batzuk gerora orbain bihurtu daitezkeenak, baina memento zauri irekita agertzen direnak. Eta ipuin batzuk ere irekita geratzen dira. Giza harremanetan suertatzen diren arazoetatik sortzen dira zauri horiek. Adibide bat jartzearren, askotan burutik gauza batzuk pasatzen zaizkigu baina ez ditugu esaten, barruan geratzen diren hitz horiek barruan eragiten dizute zauri hori. Eta kasu askotan bikoteak dira protagonistak; baina ez da nik bikoteei buruz idatzi nahi nuelako. Kontua da giza harremanetako arazoak bilatzen egon naizela, eta bikoteengan harrobi bat aurkitu dudala. Bikoteetan beste harreman guztien metafora bat gertatzen dela uste dut. Horregatik kasu askotan bikotea da protagonista, jelskeria, inkomunikazioa gaia hartuta.

**- ZER DELA ETA AUKERATU DUZU GAI HORI  
LIBURUA EGITEKO? BEREZ ATERA ZAIZU?**

Ipuin gehienak pasa den urtean idatzitakoak dira, baina bi lehendik idatzitakoak dira. Eta bi horietan ikusi nuen gai hori ateratzen zitzaidala, eta gerora ere, poliki-poliki, hurrengo ipuinetan bilatu egin dut. Finean, nire joera hori izan da.

**- ESAN DUZU IPUIN GEHIENAK IAZTIK IDATZITA  
ZENITUELA. NOLATAN, BADA, OTU ZITZAIZUN  
BILTZEA ETA LIBURUA ARGITARATZEA?**

Apurka-apurka ikusi nuen gero eta ipuin gehiago nituela, eta horietako batekin pasa den urtean sari bat irabazi nuen. Epaimahaiak esan zidan euren



gustukoa zela eta ea animatzen nintzen gehiago egitera. Eta esan nuen, "tira, zergatik ez!" eta egin nuen.

**- HAMABOST ZAURI LIBURUAK ZER EDO ZER  
ERAGIN NAHI DU IRAKURLEARENGAN?**

Ni pozik geratzen naiz lortzen baldin badut irakurtzen duena une batean identifikatuta sentitzen bada. Noizbait zerbait sentitu badu, eta ipuinak hori sentiarazten badiu, ni pozik. Pentsatzeko aukera ere ematen dutela uste dut.

**- EROSO SENTITZEN AL ZARA BARRUKO KONTUEZ  
ETA SENTIMENDUEZ IDAZTERAKOAN?**

Berez atera zaidan gaia denez, eroso sentitzen naiz horretaz idaztean. Beste batzuetan saiatu izan naiz gai arinago batzuen gainean idazten, baina indargabeak atera zaizkit istorioak. Azkenean, pentsatu dut hau dela benetan nik idatzi behar dudana, nik esan nahi dudana.

**- IPUINETAN TONU NAHIKO TRISTEA ERABILI  
DUZU. IRAKURRI DUT ERRAZAGO EGITEN  
ZAIZULA ZERBAIT TONU TRISTEAN IDAZTEA  
ALAIAN BAINO. ZERGATIK? ZURE IZAERAREKIN  
ZERIKUSIRIK BA AL DU? ALAIA EMATEN DUZU,  
ORDEA!**

(Barre egiten du). Nire amak irakurri zuenean esan zidan, "ene neska, hain tristea zara zu ala?". "Ez, ez ama", esan zion. Baina bai, idazteko mementoan gauza tristeez idatzi nahiago izaten dut, eta beharbada alaitasuna nahiago izaten dut bizitzeko. Daukadan tristezia puntu hori idazten botatzen dut. Gauza tristeez idazteari pisu gehiago ikusten diot.

**- ZENBAT DENBORA EMAN DUZU LIBURUA  
PRESTATZEN? ZEIN TARTE HARTZEN ZENUEN  
EGUNEAN ZEHAR IDAZTEKO, ZERK ERAGINDA?**

Beti detaile batetik idazten nuen. Adibidez, ikusten dut orain emakume bat begirada galduarekin eta detaile

horrek ideia bat ematen dit idazteko. Noiz? Ahal dudanean. Orain arte nahiko anarkikoa izan naiz, ahal izan dudanean idatzi dut.



## EGILEAREN FITXA

### JAIO:

Gasteizen, 1970ean.

### IKASKETAK:

Informazio Zientziak ikasi zituen eta kazetaria da lanbidez. Gara egunkarian lehen eta Komunikazio-bulego batean orain.

### IBILBIDEA:

Zenbait ipuin-lehiaketa irabazi ditu. *Hamabost zauri* da bere lehen liburua. Orain *Amaren Eskuak* eleberria du helmuga.

- **ISTORIO HAUETAN NAHIKO AGERIAN GERATZEN DA EMAKUMEON IKUSPUNTUA. HORREK ESAN NAHI DU EMAKUMEENTZAKO LITERATURA EGIN DUZULA?**

Ez, ez. Ni emakumea naizen aldetik, emakumearen ikuspuntua islatzen da. Baina nik uste desberdindu egin behar dela emakume batek emakume baten ikuspuntutik idaztea eta emakumeentzako nobela bat edo ipuinak idaztea. Askotan gizon askok esaten dute: "emakume batek idatzita bada haientzat izango da soilik". Bada, ez. Nik emakume eta gizonentzat idatzi egiten dut.

- **ISTORIO LABURRAK DIRA DENAK. KAZETARIA IZATEAK ERAGINA IZAN DU ZURE ESTILOAN?**

Bai, asko gainera. Nahiko harira noa, arina naiz, lehenengo parrafoetan beti agertzen dut informazio nahikoa... finean kazetaritzaren legeak jarraitzen ditut.

- **ARGITARATUTAKO IPUINEN ARTEAN, BATEN BATEKIN IDENTIFIKATUAGO SENTITZEN ZARA, GUSTUKO DUZU BATEN BAT BESTEEN GAINETIK?**

Zaila egiten zait aukeratzea, euren artean nahiko desberdinak direlako. Zaharrenak urrunago ikusten ditut, eta berrienak agian, gustukoago ditut. Baina ez daukat bat bereziki.

- **IPUIN ASKO GERATU DIRA LIBURUAN SARTU GABE?**

Bai, batzuk bai. Kanpoan geratu diren gehienak izan dira egitura aldetik oso antzekoak zirelako.

- **DUELA GUTXI LIBURUAREN LEHEN KRITIKA ARGITARATU ZUTEN BERRIA EGUNKARIAN. KRITIKA ONA IZAN DA. ZER SENTITU DUZU? ESPERO AL ZENUEN?**

Poza sentitu dut. Ez nuen espero hain azkar kritikarik ateratzea. Egunkaria ireki eta kritika irakurtzean halako poztasun bat nabaritu nuen.

- **IGARTZA SARIA ESKURATU BERRI DUZU AMAREN ESQUAK ELEBERRI EGITASMOAREKIN. ZERBAIT AURRERATZERIK?**

Egitasmoa eta eleberriaren aurreneko bost kapituluak aurkeztu nituen. Justu liburua argitaratu aurretik deitu zidaten esanez saria irabazi nuela. Urtebete daukat eleberria idazteko. Bi emakumeren istorioa kontatzen dut, bat ama da, bestea alaba. Orokorrean bien istorioa

## Hamabost zauri karmele jaio



elkar

## LIBURUAREN FITXA

### IZENBURUA:

Hamabost zauri

### EGILEA:

Karmele Jaio

### BILDUMA:

Literatura 243

### ORRIAK:

136

### SALNEURRIA:

11 euro

### DATA:

2004ko iraila

### Zozketa

Liburu hau lortzeko erantzun galdera honi:

**Zein da Karmele Jaioren bigarren abizena?**


bidali erantzuna e-mailaz:  
geugaste@grn.es

kontatu nahi dut, eta aldi berean bizi dituzten bi garai desberdinak islatu. Gure amek bizi izan zutena duela 40 urte, gizarte hori, testuinguru hori, ze ezberdina zen dena, baina aldi berean ze berdina den dena. Egoera oso desberdina zen, baina azkenean badira lege batzuk aldatzen ez direnak.

# KUTSIDAZU BIDEA,



**JOXEAN SAGASTIZABALEK 1994AN IDATZIRIKO "KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL" LIBURUA IZANGO DA 2005EKO NEGUAN ERE, ETA ORAIN ARTE ANTZERKIRA EGINIKO EGOKITZAPENA BEZALA, ENTZUNA. IZAN ERE, ETB TELEBISTA KATEA, ETA ORIO, TENTAZIOAK ETA REC PRODUKZIO-ETXEAK LANEAN DABILTZA, LEHENDABIZI, ELEBERRIAN OINARRITURIKO FILMA EGITEN ETA ONDOREN, TELESAILA GRABATUKO DUTE.**



"Denboran lehenengo egingo dena filma da, eta nolabait esateko film horrekintxe akordeoiarena eginez sortuko da telebistako telesaila -azaltzen du Sagastizabalek-. Orainxe egiten ari garena filmaren gidoia da, iraupenaz ordubete eta erdiko film "klasikoa", eta hori datorren urteko udaberri eta udan grabatuko da. Garai bertsuan grabatuko da printzipioz ordubeteko sei atal izango dituen telesaila".

**-BOOM-A IZANDAKO "KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL" LIBURUA TAULARATZEKO BAIMENA ESKATU ZIZUN GORRINGO ANTZERKI TALDEAK**

**DUELA URTE PARE BAT, ETA HORREN ARRAKASTAREN ONDORIOZ ETBK TELESAILA ETA FILMA PRESTATZEN DIHARDU. ZER IRITZI DIOZU?**

Ba mundiala eta ultrakosmikoa iruditzen zait. Gakoa, filma eta telesaila egiteko orduan, antzezlanaren arrakasta izan zen, baina, jakina, antzezlanaren liburuaren arrakastagatik sortu zen... katea-mailak; liburuiko istorioaren mamiak edo zertarako balio du, nonbait.

**-ANTZEZLANERAKO ZENBAIT ALDAKETA EGIN ZIREN OBRA ORIGINALAREN GAINEAN. ORAINGOAN ERE FILMERA MOLDATZEKO BERDINA EGINGO AL DA?, ZEINTZUK DIRA ALDAKETAK?**


Aldaketak pertsonaia eta egoera berriak dira, eta "klasikoak" itxuraldatu egiten ditugu zenbaitetan. Antzerkian desagertu egiten ziren bikietako bat, Ixabelen ahizpa eta ama. Filman bikiak bai eta ahizpa ere bai, amarik ez. Euskaltegiko guztiak berdin-berdin, eta berri-berriak dira herriko pertsona batzuk (tabernakoak, apaiza...). Eta baserrira iristen denean Juan Martin *Ianrober* batean eramaten duen gizona bereziki izango da garrantzitsu.

**-ZU ZARA GIDOILARIETAKO BAT, BESTEEN LAGUNTZARIK JASOTZEN DUZU?**

Gidoigile Carlos Zabala,

Nagore Aranburu eta hirurok. Bi astez behin Gipuzkoako hiriburuan biltzen gara (hiri horren izena ez dut gogoratzen) eta han lana banatu, ideiak atera handik eta hemendik eta etxera maleta bete lan joaten gara. Hirukote ederra osatzen dugu, benetan. Carlos esperientzia handiko gizona da, bai telebistan, bai zinemagintzan, gidoigile eta zuzendari (eta aktore). Nagorek telebistarako idazten du, Sorginen Laratzarako; biok egin genuen antzerkirako bertsioa. Aktorea ere bada (neu naiz aktore ez den bakarra). Normala denez, nire

# IXABEL: liburutik filmera



## JOXEAN SAGASTIZABAL

Joxean Sagastizabal idazlea aipagarria dugu 1983. urtean "Jolasean" bere lehendabiziko liburuarekin bere burua ezagutzera eman zuenean. Orduetik eginiko lanak anitzak dira eta euren artean publiko ezberdina bildu izan du egun Gasteizen bizi den *sasipatateroaren* literaturak. Bere lan arrakastatsuen, behinik behin gaur egun arte, "Kutsidazu bidea, Ixabel" izan da, liburua oinarri gerora antzezlan eta egun film eta telesail bikalatu dena.

Joxeanek "Kutsidazu bidea, Ixabel"ekin lortu duena ez da kasualitatekoa izan. Izan ere, Eibarko seme honen lanek barre sortarazteko dohaina daukate. Antzezlan Gasteizen estreinatu zenean (Geu Elkartearen ekimenez, iazko apirilean) horrela erantzun zuen bere ibilbideari buruz egindako galderari. "Ni euskaldunen semea naiz, Eibarren jaioa; txikitik euskaraz jakin bai eta gero zeharo ahaztutakoa. Hemezortzi bat urterekin ekin nion ikasteari, euskalduntze lehen mailan (eta "Euskalduntzen" metodoarekin) hasita. Gure Jaunaren 1976ko urtean udapasa joan nintzen baserri-baserri batera, jendeak "benetan" nola hitz egiten zuen jakiteko asmoz. Baserrian lanean jardun (ahalik eta gubxiena molestatzen, egia esnada) eta Alkizan klaseak neuzkan. Uda hartan ikusitako eta imajinatu-takoekin osatu nuen, halako batean, liburu honen kontakizuna".



### BIBLIOGRAFIA:

- 1983, "Jolasean", Elkar
- 1986, "Zerura igotzeko", Susa
- 1987, "Paixibo", Elkar
- 1989, "Inguratuta gatxeuden", Baroja
- 1984, "Kutsidazu bidea, Ixabel", Alberdania
- 1986, "Zorotarik euskal hiztegia", Alberdania
- 1999, "Gerturik daukagu odola", Pamiela

obra jenialarekin txerrikeriarik ez dezaten egin bijilatzeraz joaten naiz eta txkeak hartzera.

**-NORTZUK IZANGO DIRA LAN BERRI HAUETAN AKTOREAK?**

Aktoreak nortzuk izango diren ezin dut esan, ez baitago ezer loturik, eta egonda ere, super-sekretoa da.

**-LIBURUAK ETA ANTZEZLANAK LORTURIKO ARRAKASTA ETA GERO, ETBKO APUSTU ZIURRA DIRUDITE TELESAILAK ETA FILMAK? ZER-NOLAKO HARRERA IZATEA ESPERO DUZUE?**

Hombre, guk sekulako arrakasta nahiko genuke (harrigarria, ezta?). Baina nola jakin? Liburuaren eta antzerkiaren ildotik joango da? Kiebrak joko

du ETB? Zuk ba al daukazu iragarle dohainik?

**-PROIEKTU HAUETAZ GAIN, BESTELAKO HURBILEKO EGITASMORIK AL DUZU ESKU ARTEAN?**

Horretaz guztiaz aparte nobela bat bukatu nahiko nuke 2005ean, abenturetakoa, antzerki obra batekin ari naiz (supersekreto) eta buruan dabilkit nire bi nobelarekin bat osatu eta gazteleraz argitaratzen saiatzea.

josune velez de mendizabal  
argazkiak: edorta sanz

**Udaberria**  
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65  
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

*Confecciones*  
**Pinedo**  
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ  
Tfnoa.: 945 23 39 90

**EYSKAL LABELA LASAGABASTER**  
harategia eta urdaitegia

Gasteizko  
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24  
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

**ARTEPAN**  
Artisau  
Okindegia eta  
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2  
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37  
01005 GASTEIZ

Iratiren  
**BONARDI "AIRE"**  
armazoiak

orain  
**60€** -tan  
bakarrik

ZERBITZU  
OPTIKOETAN  
**1a**



**MENDIAOPTIKA**  
DESDE 1856 AZ GERO  
**MULTIOPTICAS**

Andre Maria plaza  
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)  
**GASTEIZ**

Eskaintza horiek 04/09/01etik 04/11/30era arte izango dira indarrean



**KIDG**

**APAINDURA**

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

# GORKA BLANCO: "Lekua bilatuz gero, euskaraz bizi daiteke Gasteizen"

JAIOTZEZ BILBOKOA BADA ERE GASTEIZEN BIZI DA DUELA BEDERATZI BAT URTE. "GASTEIZA BIZITZERA ETORRI NINTZEN, BESTEAK BESTE, IKASKETAK AITZAKIA ETA ONDOREN LANEAN GERATU NINTZEN", DIO. EUSKAL FILOLOGIA IKASKETAK BURUTU ZITUEN HIRIBURUAN ETA AEKN ARITU DA DUELA URTEBETERA ARTE. EGUN GARA EGUNKARIKO KOMERTZIAL LANETAN DIHARDU 29 URTEKO GAZTE HONEK. ALAIA ETA BIZIA IZATEZ, MENDIA ETA PARRANDA DITU GORKAK ZALETASUNEN ARTEAN GUSTUKOENAK.



-BIZIORIK HANDIENA?

Jatea.

-JAKI GUSTUKOENA?

Denetarik jaten dut, ez daukat bereziren bat..., hori bai, ez naiz oso gozozalea.

-BERTUTERIK?

Entzutea edota entzuten jakitea.

-ZERK ATERATZEN ZAITU ZURE ONETIK?

Jendeak asko hitz egiten duenean eta interesgarria dela pentsatzen duenean.

-GEU ALDIZKARIA ETA ELKARTEA EZAGUTZEN DITUZU?

Bai, aspaldian nahiz eta harpidedun izan ez.

-EGUNKARI BAT?

Gara.

-TELEBISTA SAIO BAT?

Pelikulak ditut gustuko batez ere.

-FILMIK GUSTUKOENA?

Pulp Fiction.

-ZINEMAN IKUSI DUZUN AZKENA?

...aspaldian ez naizela egon, urtebete behintzat... ez naiz gogoratzen.

-ZERI DIOZU FOBIA?

Maite dudanei edo inguruko lagunei zerbait gertatzeari.

-OPORRAK NON ETA ZERTARAKO?

Urtean zehar egiten ez dituzun gauzak egiteko eta lekua, aldiz, ez da inportanteena.

-NORA EZ ZINATEKE JOANGO?

Ez daukat leku madarikaturik.

-LIBURU BAT?

Nire bizitzan eragin handiena izan duena: "Dejar de fumar es fácil si sabes cómo". Betidanik erre izan dut eta azkenik martxoan utzi nion.

-KOLORE BAT?

Horia.

-MUSIKA GUSTUKOENA?

Rock estilokoa batez ere.

-ZEIN IZAN DA IKUSI DUZUN AZKEN KONTZERTUA?

Aranbizkarrako jaietan Doctor Deseo-rena.

-GASTEIZEK DUEN ONENA?

Leku zabala, hau da, memento batean hirigunetik kanpo egon zaitezkeela.

-ETA TXARRENA?

Etxebizitzaren kostua.

-EUSKARAZ BIZI AL DAITEKE GASTEIZEN?

Bai, lekua bilatuz gero. Hau da, beti egongo da okindegi edota banku euskaldun bat.

# Euskal Herria. Bakarti baten begirada

Ruben Argote  
argazkizalearen  
diaporama

Azaroak 23, 20.30ean Parral tabernan,  
GEU aldizkaria & elkartearen eskutik

Ruben Argote arabarraren -Gasteizen jaioa eta Subillakoa debozioz-argazkiak dira bertan aurkeztuko direnak. Rubenek egun Laia bihilabetekarian kolaboratzaile dihardu: 40 urteko gizon hau duela hamar bat urte apuntatu zen euskaltegian. "8. urratsean nengoela utzi nuen -nabar-mendu du barrezka-, herriko jendearekin eta baserritarrekin komunikatzeko gai ikusi nuenean nire burua; niretzat EGA izatea bezala izan zen". Rubenek, bere herriaren maitale den heinean, Euskal Herriko txoko eta pasarte ezberdinak jasotzen ditu bere argazki-kamerarekin. "Asko mugitzen naiz hemendik. Sarritan Errioxara, Nafarroara edota kostaldera gerturatu ohi naiz bakarrik paseotxo bat emate-agatik -azaldu du-. Bakarti baten ikuspuntutik jasotako argazkiak eta proposamen estetikoak da honakoa".

## Topikoetatik at

Rubenek jasotako irudietan paisaiak eta pertsonak ikus daitezke, besteak beste: "Herri honetako topikoak agertzen dira, baita apurtu ere, herri honetako esanak eta kontra-esanak; bestetik, paretak oso lekuko onak dira herri honetako gatazkaz hitz egiteko eta hemengo egoera soziala eta politikoa islatzeko".



**"Euskal Herria. Bakarti baten begirada" izenpean Laia aldizkariak (Añanaldeakoa) sorturiko diaporama ikusgai izango da GEU aldizkaria eta elkartearen ekimenez, azaroaren 23an (asteartea), 20.30etik aurrera, Parral Tabernan (Alde Zaharrea).**



Rubenek argazki ugari egin ditu urteen poderioz eta emanaldi honetarako aukeratu dituen argazkien artean orokorrean Euskal Herrikoak sailkatu ez ezik, Arabako txokoak izan ditu irizpide. "Euskal Herriari buruzko programa guztietan beti agertzen diren mendi berdeak Gipuzkoakoak edota Bizkaikoak dira, eta topiko horiekin apurtzen du diaporamak", esan du. Rubenen aburuz, "bestetik, atzeritarrek baikinan ikusi behar dugu diapositiba eta musika emanaldi hau. Bidai agentzien triptikoetatik edo topikoetatik aparte dagoena bilatzea dauka helburu honek. Herri honen mamia bilatu eta erakutsi nahi dut, hots, egunkarietan agertzen den gatazka horren bila joan; nola igorri hori kalera ateraz eta bertako gauzei argazkia eginez".

Argazki bilduma hau nola lortu duen galdetuz gero, Rubenek dio abuztuan eta uda partean batez ere jendeak kanpora egiten duela alde, bai Kubara edota Gabonera, eta bueltan diapositiba eta bideo asko dakartzatela: "Nik aldiz, nahiago izaten dut hemen geratu, parada ezin hobea da gure herria ezagutzeko. Askotan pentsatzen baitugu asteburuko txangoekin ezagutu dezakegula Euskal Herria, baina ez, denbora behar du eta".

josune velez de mendizabal  
argazkiak: © ruben argote





# Irrintzirik gabeko zalditxoa



Enpresa aski ezaguna da Pferd-Ruggeberg, Caballito, Gasteizen. Alemaniako multinazionalak 35 urte daramatza Arabako hiriburuan disko urratzaileak egiten. Gaur egun lan gatazka luze batean murgildurik dago. 2003ko urriaren 30ean lanuzte mugagabea abiatu zuten beharginek.

Enpresak lantoki berri bat zabaldu zuenean hasi ziren arazoak. Iazko uztailan, dagoeneko zuzendaritza eta Langileen Batzordea itun kolektiboaren negoziazioan hasiak zirela, lekualdatzeko plana aurkeztu zuen enpresak, ezuste eta guzti: 25 langile, guztiak produkziokoak, soberan zituen eta kaleratu nahi zituen. Gaur egun 220 langile ditu Pferd-Ruggeberg. Aurreko lantegiak 25 milioi disko urratzaile ekoizten zituen

urtean. Berrian, aldiz, produkzioa bi aldiz gehiago izatea espero zen. ELAK lau ordezkari ditu batzordean, eta bana CGT, UGT, ESK, LAB eta LSBk. Bat datoz guztiak plataforma bera defendatzeko. Enpresak, kaleratzeaz gain, lan baldintzak okertu nahi izan ditu eta hainbat eginbehar azpikontratu ditu. Hala, garbiketa, biltegia edo produkzioaren parte bat beste enpresa batzuen esku utzi zituen. Hori dela eta, langileak soberan egotea enpresak berak sortutako arazoa dela uste du Langileen Batzordeak.

Gauzak horrela, itun kolektiboaren negoziazioa blokeatuta zegoela, eta enpresak soberatzen jotzen dituen 25 beharginei eusteko asmorik ez zuela ikusita, Batzorde osoak, aho batez, presio neurriak gogortzea erabaki zuen, urriaren 30ean lanuzte mugagabea abiatu zutelarik Caballito-ko langileek.

## X 2003-10-30

Pferd-Ruggeberg Caballito-ko langileek greba hasi zuten.

## X 2004-01-20

Enpresak beste bi langile kaleratu zituela jakinarazi zuen Langileen Batzordeak.

## X 2004-02-02

Caballito-ko langileek kanpaldia hasi zuten Artiumen. Astebete lehenago, enpresak egindako eskaintzari proposamen berria aurkeztu zioten langileen

ordezkariek: %4,8ko soldata igoera eta ordura arte kaleratutako lau langileak berriz ere hartzea. Proposamena aztertu artean mobilizazioei ekin zieten langileek.

## X 2004-02-11

Pferd-Ruggeberg-Caballito enpresako langile grebalariei ordezkari bat Lakuan izan zen, Ignacio Zabala Eusko Jaurlaritzako Lan sailburuordearekin bilera egiteko. Bilera horretan Jaurlaritzari eskatu zioten

enpresako zuzendaritzari presio egin diezaiola, gatazka konpontze aldera.

## X 2004-02-26

Manifestazioa egin zuten Caballito-ko langileek Gasteizen, Langileen Batzordean ordezkariak duten sei sindikatuek deituta. Manifestazioak mila lagun inguru bildu zituen, nahiz eta hotz egiten zuen eta euria ari zuen. Negoziazioa eta bidezko ituna aldarrikatu zuten.

**X 2004- 04-01**

Caballito enpresako langileen gehiengo zabal batek zuzendaritzak egindako eskaintza errefusatu zuen. Orotara, 189 beharginek zuten bozkatzeko eskubidea, eta partehartzea oso handia izan zen. 124 langilek (%65,6) zuzendaritzaren eskaintzaren aurka bozkatu zuten; bakar batek zuri bozkatu zuen, eta gainontzeko 61 beharginak (%32,27) ituna onartzearen alde azaldu ziren.

**X 2004-04-21**

Sei hilabeteko lanuztearen ostean, Caballito enpresako zuzendari Thomas Ruggebergek langileekin negoziazio gehiagorik egingo ez zuela adierazi zuen.

**X 2004- 04-26**

Sei hilabete greban, eta tinko. Caballito-ko langile gehienek grebaren tesiari eutsi zioten berriro, eta zuzendaritzak aurkeztutako eskaintza arbuiatu zuten.

**X 2004-06-04**

Caballito enpresako Langileen Batzordeak baztertu egin zuen zuzendaritzak arbitrajea eta epaia eskatzeko egin zion proposamena. Horren ordez, irtenbidea bilatzeko Lan Harremanetarako Kontseilura (LHK) jo eta bitartekaritzaren bidez saiatu nahiago zuten.



**X 2004-06-08**

Zortzi sindikatuk Caballito enpresako grebalariei elkartasuna adierazteko ordubeteko lanuztera deitu zuten Gasteizko eta Arabako Lautadako langileek. Grebak izandako erantzunarekin pozik azaldu ziren antolatzaileak, bai eta langileen batzordeko ordezkariak ere.

**X 2004-06-21**

Caballito-ko zuzendaritzak iragarri zuen Gasteizko lantegiko produkzioaren zatirik handiena Ekialdeko Europan eraikiko duen lantegira eramango zuela.

**X 2004-06-28**

Gatazka konpontzeko bitartekaritza erraztea eskatu zioten Pford-Ruggeberg, Caballito enpresako Langileen Batzordeko ordezkariak Joseba Azkarraga Jaurilaritzako

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari.

**X 2004-07-06**

Langileek ezetz esan zioten UGT sindikatuak zuzendaritzarekin adostu zuen konponbide proposamenari.

**X 2004-07-20**

Caballito-ko grebalariek bat egin zuten Langileen Batzordeko gehiengoak defendatzen zuen jarrerarekin, eta gatazka Eusko Jaurilaritzako arbitratze baten bidez gainditzeko prest azaldu ziren.

**X 2004-07-28**

Enpresako zuzendaritzak Jaurilaritzaren arbitrajea ez duela "aproposa" ikusten iragarri ostean, langileek grebari eustea erabaki zuten, eta grebalarien batzarraren gehiengoak onartzen duenean soilik itzuliko zirela lanera ebatzi zuten.

## ZURE HARATEGIAK

Jose Luis

**GARMENDIA**

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

**XABIER  
AIZPEOLEA HARATEGIA**

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



**gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak**

## PLATER MIMATUAK...

EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA  
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!



Unai eta Patxi Fernandez de Retana  
Zerkabarren kalea, 18 · GASTEIZ  
Telefona: 945 26 38 74



**X 2004-07-29**

Caballito-ko auzian bitartekari izateari utzi zion Eusko Jaurlaritzak. Zuzendaritzaren ezetza eta gero ez zuela beste aukerarik esan zuten Lan Sailak.

**X 2004-07-30**

Azken bost hilabeteetan Gasteizko Katedral Berriaren atarian izan zuten kanpalekua altxatu, eta enpresaren aurrealdera eraman zuten Pferd-Ruggeberg Caballito enpresan greba egiten ari ziren langileek.

**X 2004-09-03**

Abuztuko etena igaro eta gero, indarberriturik ekin zioten grebari Caballito enpresan kalean jarraitzen duten langileek. Irtenbidea negoziatutako akordio bat edo hirugarren baten

eskuhartzea izan beharko dela nabarmendu zuten Langileen Batzordeak. Hori dela eta, Precoren bidez bilera baterako deitu zituzten Caballito-ko buruzagiak.

**X 2004-09-09**

Aspaldiko partez lehenbiziko hartu-emana izan zuten langileek eta zuzendaritzako ordezkariak, Precon. Ez zuten emaitzik eman.

**X 2004-09-29**

Caballito-ko zuzendaritzak enpresa "berregituratzeko plana" aurkeztu zion Langileen Batzordeari. Batzordeak salatu zuten ideia horrek ez duela gatazka konponduko, eta soilik arazoa luzatzea bilatzen duela.

**X 2004-10-06**

Caballito-ko zuzendaritzak beste bi langile kaleratu zituen (tartean, Langileen Batzordeko presidente Joseba Leza), "disziplina" arrazoiak argudiatuz. Egun berean, Langileen Batzordea Lakuako Lan Sailarekin bildu zen, baina ez ziren gustura atera batzarretik.

**X 2004-10-08**

Caballito-ko zuzendaritzaren aurkako epaiketa egin zen Gasteizko Epategietan, Lakuako Lan Ikuskaritzak egindako txosten baten harira: txosten horretan esaten zen enpresak langile grebalariak beste langile batzuegatik ordezkatu zituela.

edurne begiristain  
arg.: edorta sanz

*Bacalao Giraldo*



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



**ERAMAN ETA JAN**  
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25  
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36  
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza  
GASTEIZ



**ERROTA**  
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ  
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390  
e-mail: errotadental@euskalnet.net

# Gasteizko IKA, 15 urte

**GASTEIZKO IKA 1989. URTEAN ERATU ZEN, HELDUEN EUSKALDUNTZEA BERE ZEREGIN NAGUSIA IZAKI. GEROZTIK, GURASO, FUNTZIONARIO, IRAKASLE, GAZTE, HELDU**

**ETA LANGILE ASKOK EUSKARA IKASI DUTE BERTAN. IZAN ERE, GURE HIZKUNTZA IKASTEAZ GAIN, EUSKAL KULTURA BEREGANATZEKO AUKERA PAREGABEA TOPATU DUTE, ESKOLAK**

**1** 989. urtean Nafarroako eta Arabako zenbait euskaltegi IKA deritzon koordinakundea sortu zuten. Euskaltegi hauen lana euskara suspertzea eta hizkuntzaren erabilera sustatzea da eta bi dira hauen xede nagusiak; batetik, euskara irakastea eta bestetik, euskaldunok euskaraz bizitzea. Argi geratu da helburua eskuratu dutela, Gasteizko IKAk ateak zabaldu zituenetik milaka gasteiztar eta arabar euskaldundu baititu. 2003/04 ikasturtean, esaterako, 3.000 pertsona baino gehiagok ikasi zuten euskara IKako euskaltegietan. 2.500 ikasle inguruk urritik ekainera egin zuten, 300 baino gehiagok udan eta 250 ikaslek Leitzan zein Lesakan udaran antolatzen dituzten barnetegietan.

## IKAren eskaintza zabala

Aurten ere matrikulazio kanpainak emaitza onak eman ditu eta aurreko ikasturteko datuekin alderatuta, igoera sumatu da. Egiazki, euskaltegi hauen eskaintza zabala eta anitza da eta gizartearen sektore ezberdinen eskaerei aurre egiten die. Honela, helduentzako 2, 3 eta 5 orduko ohiko ikastaroez gain, beste hainbat zerbitzu eta ikastaro ematen ditu.

Batetik, euskalduntze prozesuan ari diren irakasleei 5 orduko ikastaroak ematen dizkiete. Irakasle talde hauek hezkuntzako irakasleak biltzen dituen IRALE erakundeak antolatzen ditu, ondoren Gasteizko euskaltegi ezberdinetan banatzeko.

Bestetik, erakunde publikoetako langileei zuzendutako ikastaroak eskaintzen ditu koordinakundeak. Orokorrean esanda, bi orduko eskolak izaten dira eta aurreko ikastaldiak legez, Eusko Jaurlaritzak

antolatzen dituen ikastaro hauek euskaltegi guztien artean banatzen dira eta hauen xede nagusia langileei dagozkion Hizkuntza Eskakizuna eskuratzea da. Horrez gain, Administrazioako Langileak Euskaraz Trebatzeko programari esker ere Arabako Aldundiko zein Gasteizko Udaleko langileek euskara ikasteko aukera dute IKAn, batez ere izaera praktikoa duten eskolen bidez. Erakunde publikoak ez ezik, IKAk enpresa pribatuak ere euskalduntzen ditu, esaterako, Vital Kutxako langile asko.

Bestalde, B eta D ereductako ikaste-txeetan seme-alabak dituzten gurasoek ere euskara ikas dezakete IKako euskaltegietan, Gasteizko Udalak antolatutako ikastaroei esker. Aurreko ikastaldiak bezala, guraso taldeak hiriko euskaltegi desberdinen artean banatzen dira. Hauek gizarte-etxeetan ematen dira, astero 4 ordu eta erdiz eta gurasoek euren seme-alabekin oinarritzko komunikazio-maila lortzea dute helburu.

Baina hau ez da guztia. Langraizeko espetxeratuei zuzendutako ikastaroak, EGA azterketa eta Hizkuntza Eskakizunak prestatzeko ikastaroak, Euskal Herriko Unibertsitateko langileentzako eskolak eta euskara irakasle izateko ikastaldiak ere aurki daitezke IKAk Gasteizen dituen hiru euskaltegietan.

Nolanahi, eskolak ez dira IKAk bere ikasleei eskaintzen dien gauza bakarra. Honako hau da IKA euskaltegiaren filosofia; "hizkuntza bizirik dagoen zerbait da, horregaitik, euskara ikasten duen ikasleak, hizkuntza ikasteaz batera, mundua ulertzeko era bat, kultura bat ere bereganatzen du". Hortaz, Euskal kultura euskararen irakaskuntzan zati funtsezkoa denez, honen berri ematen




dituen ekintza anitz antolatzen ditu koordinakundeak, bai eskolan zein eskolaz kanpo ere. Hauen artean, urtean behin ospatzen diren gaitzain-jana, txistorra-jana, udaberriko jaiak, txapelketa kulturala eta kultur asteak daude. Hauek guztiak helburu komun batekin; ikasleak beste testuinguru batean euskara erabiltzeko aukera ematea, hain zuzen.

# Araba euskalduntzen


EZ EZIK, KULTUR EKINTZA ANITZ ESKAINTZEN  
DIELAKO IKAK. IADA, 15 URTE DARAMA  
BERE ZEREGINEAN ETA, BERAZ, IKASTURTE  
HONETAN XV. URTEURRENA OSPATUKO

DU, URTARRILAREN 13TIK AURRERA  
HEGOALDE GIZARTE-ETXEAN IKUSGAI  
EGONGO DEN ERAKUSKETAREKIN. BERTAN,  
IKAREN JARDUERAREN BERRI IZANGO DUGU.

saioa fdz. de arangiz  
arg.: edorta sanz



<b>IKAko euskaltegiak-Gasteiz</b>
<b>Aratz-Pinto euskaltegia:</b> Adriano VI.a, 18
<b>Zaldiaran euskaltegia:</b> Badaia, 25
<b>Gasteiz-Adur euskaltegia:</b> Errege-erregina katolikoak, 15
<b>IKAko euskaltegiak-Araba</b>
<b>Errioxa (Lapuebla, Bastida, Biasteri, Oion, Biana eta Mendabia)</b>
Gaubea
Langraiz
Maeztu
<a href="http://www.ikanet.net">www.ikanet.net</a>



**Didaktika berria, urratsetatik mailetara**

Aipatutako helburuak lortzeko eta garai berrien eskaerei aurre egiteko, IKA euskaltegiak kurrikulu berria abian jarri zuen iaz, ikasleek hobeto eta azkarrago ikas dezaten. Horretarako, metodologian hainbat aldaketa egitea beharrezkoa suertatu da, besteak beste,

**15 urte**

ikas-materiala hobetzea, irakasleen prestakuntzan sakontzea eta orain arte euskaltegiaren euskalduntze prozesuan mantendu den antolaketa aldatzea, hau da, euskaltegien urratsetatik mailarako bidea egitea.

Orain arte, euskalduntze prozesua 12 urratsetan banatuta egon bada ere, hemendik aurrera HABEK indarrean jarritako banaketa berria ezarriko da pixkanaka euskaltegi guztietan, aipatutako prozesua 3 mailakoa bilakatuz. Honela, lehenengo 6 urratsak 1. maila izango dira, ondorengo hiru urratsak (7., 8. eta 9.) 2. maila eta azkenengo hirurak (10., 11. eta 12. urratsak) 3. maila. IKako Didaktika arduradun Sonia Antonek aldaketa honen arrazoiak azaltzen dizkigu: "Batetik, didaktika erronka berriei erantzun behar diegu eta bestetik, beste erakundeetako mailaketa sistemekin parekatu beharra daukagu, Europa mailan gainerako hizkuntzen irakaskuntzan sistema hau erabiltzen dutelako".

Dena dela, aldaketa ez da berehalakoa izango. Mementoz, 1., 4. eta 7. urratsak eta 3. mailakoak hasiko dira mailaka. "Iaz lortutako emaitzak onak izan ziren, urtebetean 2 urrats egin beharrean, 3 egin zirelako. Beraz, ikasleek azkarrago eta hobeto ikasi zuten euskara. Mailaketa sistema berri honekin maila bakoitzeko helburuak eta edukiak aldatu baitira", azaldu digu Soniak. Hurrengo ikasturtean, berriz, "talde guztiak mailaka hastea izango da gure asmoa", dio Soniak.

Argi dago beraz, hasi berri den ikasturtea berezia izango dela. Ez bakarrik didaktika berria abian jarri delako, baita Gasteizko IKaren XV. urteurrena izango delako ere. Ospatzeko, euskaltegiak bere jardunaren berri emango duen erakusketa antolatu du urtarrilaren 13tik otsailaren 20ra Hegoalde gizarte-etxean, "Gasteizko IKak 15 urte (1989- 2004)" izenburupean. Aukera paregabea euskaltegi honen historia eta nondik norakoak ezagutzeko.



## ADMINISTRAZIOKO LANGILEAK

Amaia Rementeria eta Roberto Gerenabarrena Administrazioko 14 langilek osatzen duten taldeko irakasleak dira. Egun, 8. urratsean dago taldea eta ikasle gehienak Udaleko eta Osakidetzako langileak izaki, euren Hizkuntza Eskakizuna lortzeko beharrean daude, halarik ere, hauxe ez da euskaltegiara joateko arrazoi nagusia. Batez ere, euskara ikastea da haien helburua, euskara jakiteko eta hitz egiteko nahia dutelako. Horretarako, egunero Armentia Ikastolara joaten dira 5 orduko eskolak jasotzera.



## GURASO TALDEA

Euskara ikastea da guraso talde honen grina, izan ere, euren seme-alabekin euskaraz hitz egitea eta euren ikasketetan laguntzeko gai izatea ere motibazio garrantzitsua da 8. urratsean dagoen talde honentzat. Gasteizko Udalak B eta D ereduaren seme-alabak dituzten gurasoei eskaintzen dizkien ikastaroei esker, 7 ama eta 2 aita hauek astean hiru eskola jasotzen dituzte Europa gizarte-etxean, goizeko 9:45etik 11:15era arte.



## ZALDIARAN EUSKALTEGIKO TALDEA

Anitzak dira Zaldiaran euskaltegian 7. urratsa egiten ari den talde honek euskara ikasteko dituen arrazoiak. Batez ere, gure hizkuntza ikastea, noski. Lanerako beharrezkoa suertatzen den Hizkuntza Eskakizuna kasu gehienetan bigarren maila batean geratzen da, euskara ikasteko gogoia indartuz. Baten batek, euskara ikasteaz gain, jendea ezagutzeko aukera ona dela dio. Dena dela, egunero bi orduko eskolen erritmo gogorra eraman arren, oso motibatuta eta pozik dagoen taldea dela dio bere irakasle Juanpak.



## ARATZ-PINTO EUSKALTEGIKO TALDEA

14 ikaslek osatzen dute egunero goizko 10etatik 12etara Aratz-Pinto euskaltegian 1. urratsa egiten ari den taldea. Euren nahia ama-hizkuntza ikastea dela esan digu Alicia Montero irakasleak. Horrez gain, batzuek euren seme-alabekin euskara egin ahal izateko ere ikasi nahi dute euskara. Beste batzuek, berriz, lanen beharrak direla eta izena eman dute euskaltegian. Edo denbora falta dela eta, lehenago ikasi ezin izan dutela diote ikasle batzuek eta orain memento egokia aurkitu dute. Arrazoi bat edo beste, denak gustura doaz klasera, euskara ikasteko duten gogoia handia baita.



**GEU**

➔ **HITZALDI MULTIMEDIA**

GEU aldizkaria & GEU elkarteak & Nabarraide AZAROAK 17, ASTEAZKENA 1000. URTEKO EUSKALDUNAK, ERLANTZ URTASUN historiagilearen eskutik Montehermoso Kulturunean, Betolatza aretoan, 20:00etan

➔ **GEUREKIN MENDIRA**

AZAROAK 21 DULANTZ (1239 m) (\*arratsaldean itzultzekoa) Arduraduna: Iñaki 945146296. Irteera: goizeko 9:00etan Lovainan

➔ **DIAPORAMA**

GEU aldizkaria & GEU elkarteak EUSKAL HERRIA. BAKARTI BATEN BEGIRADA AZAROAK 23, ASTEARTEA RUBEN ARGOTE argazkizalearen eskutik 20:30ean PARRAL tabernan

➔ **GEUREKIN MENDIRA GAZTE TALDEAREN II. IRTEERA**

AZAROAK 28 - ARATZ Autobusez: 8:45ean autobus-geltokian Informazioa: 945222153 (GEU elkarteak-Josune)

➔ **KULTUR ERROTA**

AZAROAK 2 8astertea Ipuin kontalaria: ANTON IRUSTA AZAROAK 30 (asteartea) KONTZERTUA: MUSKER OKER reggae, rocka, bossa, popa, funkya, jazza 20:30ean, PARRAL tabernan

**ZENBAIT**

➔ **DANTZA askatuaren XX. erakusketa**

Azaroak 13. Izarra herrian. 19:30ean Araba Dantzarien Biltzarra

➔ **AUGUSTIN ZUBIKARAI**

**IV. SARIA**

Nobela laburrentzat 2004 Epea: abenduak 1 Antolatzaileak: Ondarroako Udala&Elkar argitaletxea Informazioa: Ondarroako Udala-Euskara Zerbitzua

➔ **GARI. 0-tik azken diskoaren**

**aurkezpen-kontzertuak:**

Azaroak 19, Durangoko Kafe Antzokian Azaroak 27, Aguraingo Harresi aretoan Ordua: zehazteke

**GAUEKOAK EUSKARAZ**

**Tokia: Aldabe gizarte-etxea**

**Azaroak 12, ostirala**

PIKOR antzerki taldea: "Zapaldu Marra" 2 emanaldi: 11:00etan eta 20:00etan (sarrera: 1€)

**Azaroak 26, ostirala**

Literatura eta Musika-Ekitaldia: "28 letra eta 7 nota Munduari itzulia emateko" PATXI ZUBIZARRETA eta JABIER MUGURUZA 2 emanaldi: 11:00etan eta 20:00etan (sarrera: 2€; 30 urte baino gehiagokoentzat: 4€)

Hurrengo ikastaroetako izenemateko epea zabalik dago:

**PERKUSIOA**

Azaroak 5, 12, 19 eta 26.

**TXALAPARTA**

Azaroak 27, Abenduak 4, 11 eta 18.





## 'Ilargiaren sekretua' filma



Euskal Herrian film gutxi ekoizten bada, ia ez dago ezer euskaraz eginda. Haurrei begira badira euskaraz bertan egindako marrazki bizidunak baina pertsonaia errealekin egindakorik ezagutzen al da?

Hutsune hori betetzen laguntzeko, HIK HASI euskal heziketarako aldizkariak ILARGIAREN SEKRETUA filma ekoiztu berri du eta hori bera eskaintzera dator.

*Filmaren laburpena:*

Ilargiak gauero eta jendea konturatu gabe sortzen eta isurtzen ditu loreak lurrera; naturari eta pertsoneri

bizitza eta kolorea ematen dieten loreak.

Batzuek, lore guztiak nahi dituzte eurentzat, botere magiko handiak baitituzte. Horretarako, lurreko lore guztiak biltzeaz gain, ilargiari kortxo batez tapatuko diote ahoa. Horrela ilargia haziz, gizenduz joango da eta ilargi betea denean, potoloen dagoenean, tramankulu batekin zurrupatuko dute, barnean dituen lore guztiak eurentzako izan daitezen, eta handik aurrera loreak eurentzat bakarrik egin ditzan. Gero, eta mundua ez konturatzeko, ilargiaren irudi bat proiektatuko dute zeruan.

Haurrak, lehenengo lore baten bila dabilta (etorkinaren senidea sendatzeko, lorea sendagarri baita); gero, besteen asmoak deskubritzean, ilargia bera osatu nahiko dute, loreak sortzen jarrai dezan, eta natura lehenera itzul dadin.

### Fitxa teknikoa

Zuzendariak:

Alicia Garaialde eta Enrique Urdanoz (Iruñeko ITP)

Ekoizpena:

HIK HASI (Xangorin)

Gidoia:

Maialen Lujanbio

Filmaketa:

Iruñeko ITP

Musika:

Xabier Zabala

Aktoreak:

Pirritx, Porrotx eta Amona Josefina pailazoak; Ramon Agirre, Mailu Arruti, Joserra Fachado, Niko Lizeaga, Nagore Orbeltzu, Mertxe Rodriguez Arantxa Urbe eta Anartz Zuazua aktoreak; Lasarte-Oriako Landaberri antzerki eskolako kideak; Donostiako Zurriola ikastolako antzerki eskolako haurrak (Ane C., Ane G., Israel D., Oihane Tx. eta Oihane F.) eta Sidi haur sahararra

Iraupena:

90 minutu

Jatorrizko bertsoia:

euskaraz

**AZAROAK 16. GURIDI ZINEMAN Antolatzailea: HIK HASI aldizkaria**

# Gasteiz XIX; "apaiz eta militarren hiria"

SARRI AHAZTU EGITEN DUGUN ARREN, EZ DAGO XIX. MENDEA SAKON AZTERTU GABE HISTORIA GARAIKIDEA ULERTZERIK. GASTEIZEN, EZIN DITUGU ZUBI-MENDE IZANDAKO HORRETAN GERTATURIKO HAINBAT GAUZA AHAZTU, EGUNGO PENTSAMENDU ETA GERTAERA EZBERDINEN ZERGATIA EZAGUTZEKO. ASKOTAN ENTZUN DUGU GUREA, APAIZ ETA MILITARREN HIRIA DELA. HONAKOEA, JATORRIA XIX. MENDEAN DUEN ESALDI HORI OSO MODU AZALEKOAN AZALDU NAHI DUEN IRUZKINA DUGU, HAU DA, HIRI ATZERAKOI BATEN ZERGATIAN MURGILDU NAHI DUENA.

## IPARRALDEKO ATENAS

7.000 biztanle eskasekin eman zituen Gasteizek lehenengo urratsak XIX. mendean barrena. Mende erdialdean bizi izan zuen populazio hazkunderik handiena (ia 20.000 biztanle) eta, baita darabilgun epeko garairik oparoena ere. 60 eta 70. hamarkadetan hiriak mugimendu kultural distiratsua bizi izan zuen, bertako kronista nartzisista askok Iparreko Atenas izena eman ziotelarik. Edonon gertatzen ziren kultura alorreko tertulia eta bilerak. Elkarte kultural askoren jaiotza ere mendearen bigarren erdialde honetan gertatuko da: Circulo Vitoriano (1866); El Ateneo Científico, Artístico y Literario (1866). Era berean, hezkuntzarekin harremanurik hainbat jarduera eta instituzio ere sortuko da. Gauzak horrela, Gasteizek Estatuko alfabetizazio mailarik altuenetarikoa mantenduko zuen epe honetan.

Orkestra kulturala, Real Sociedad Vascongada de Amigos del Pais-en espiritu ilustratuaren fruitu zen Arte Ederretako Akademiaren zuzendaritzapean zegoen. 1774.ean jaio zen eta artisautza-industria eta honen ikasketa bultzatu zituen XIX. mendean. Artisau ororen semeak bertara bidaliak izaten ziren marrazketaren bitartez euren jardun profesionala hobetzeko. Helburu artistikoak ez ziren alderatzen eta korrante estetiko berrien ezagupenerako toki ezin aproposagoa zuten bertan hiriko artistek. Alor artistiko-berritzaile honetan, aitzindari izan zen Akademia hainbat ekintzetan, hala nola emakumeei zuzenduriko marrazketa ikasketak 1840an, lehenengoak Estatu mailan.

Udalak Akademiarekin harreman estuak mantentzen zituen eta horrek, are eta gehiago hurbildu zuen biztanleengana. Desio bakarra zuen biztanleriaren gehiengoak (artisau, artista, intelektual, politikari...): perfekzionamendu artistikoa marrazketaren bitartez.

Hiriak oparotasun kulturala arnasten zuen antza, baina laster itoko zuten eliza eta militarren menpe zeuden botere tradizionalistek edozein urrats aurrerakoi.

## MILITARREN HIRIA

XIX. mendean gerra eta gatazka ezberdinek Europa guztia kolpatu zuten. Gasteiz, noski, ez zen giro beliko horretatik at geratu eta Estatu mailan gertaturiko gatazka militar ezberdinek eragin zuzena izan zuten hiriarengan: Bi gerra karlista, Frantziaren kontrako gerra ("Gasteizko bataila" barne), altxamendu militar eta zibil etengabeak... Halabeharrezkoa ematen zuen militar presentziak, are gehiago, aitzinean emandako arrazoiei, hiriak zuen kokapen estrategiko bikaina gehitu egiten baldin badiogu. Erdi Aroan oligarkia lokala aberastu zuen kokapen geografiko interesgarri berberak, erakarri zuen XIX. mendean gurera ejerzitoaren presentzia izugarria.

Mende osoan zehar presentzia militarra oso inportantea izan arren, memento konkretu batzuetan itogarria izatera heldu zen. Lehenengo gerra karlistan (1833-39) adibidez, 22.000 soldadu egotera heldu zen, populazio zibila 10.000 biztanle ingurukoa zelarik. Militarren eragin eta boterea 1843tik aurrera areagotu zen, urte horretan, Kapitaintza Jeneralaren egoitza ekarri baitzuten hirira. 1893.era arte mantendu zuten egoitza hori gure artean. Protesta ugari ekarri zituen Kapitaintza Burgosera eraman izanak, izan ere, eta euren presentzia itogarria izan arren, soldadu multzo horren inguruan mugitzen baitzen hiriaren jarduera ekonomikoaren gehiengoak. Ejerzitoaren zerbitzupean zegoelarik, hiriak ez zuen benetako industria edo eta bestelako pisuzko jarduerarik garatu.

MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

**zurbeltz**

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

## GASTEIZKO BATZOKIAK



ABENDAÑO

Enrique Eguren, 5-7  
Tfnoa. 945242852  
945220715 (jantokia)

ERDIALDEA

Santa Barbara pza. z/g  
Tfnoa. 945203312  
945280997 (jantokia)

LAKUA

Biltzar Nagusien k, 54  
Tfnoa. 945175651  
945176406 (jantokia)

ZARAMAGA

Gasteiz kalea, 18  
Tfnoa. 945288068

Taldeentzako bazkariak eta afariak prestatzen dira, aurretik erreserba eginez

Diaz de Olano



## APAIZEN HIRIA

Errestaurazioarekin batera, Estatu guztian gertatu zen 1875etik aurrera elizaren berrindartze bat. 1862an Gasteizko Apezpikutzak sortzearekin batera, Gasteizen nabariagoa egin zen elizaren presentzia. Santa Maria Kolejiata Katedral moduan kotsakratu zuten (1862), orden berriak hirira etorri ziren, elizgizonen presentzia nabarmen ugartu zen, tenplu erlijioso berriak altxatu ziren, Seminarioak sortu...

XX. mendera heldu orduko adibidez, Gasteizen 751 elizgizon zegoen, garaiko populazioaren %2 (1910). Eliza, beraz, bizitza pribatu zein publikoaren alor guztietan azaltzen zen eta ikaragarria zen jendearengan azaltzen zuen kontrola, behinik behin, morala. Langile zein nekazal sindikatuetan, maisu elkartetan, edo eta aisialdirako talde ezberdinetan ere oso presentzia inportantea zuen. Influentzia politikoa ere bazuten, sarri Apezpikuak berak eten behar izan zuena. Gainera eta militarrekin gertatzen zen bezala, ekonomiaren alde oso garrantzitsu batek eurek jotako musikaren arabera dantza egiten zuen, besteak beste, hiriguneko lur sail handien jabe baitziren.

## HIRITAR ARRUNTAK

Klaserik xumeenak aurretik aipaturiko bi estamentuen eta horiekin bat egindako oligarkia tradizionalaren menpe zeudela esan beharrik ez dago. Artisauak ziren gehienak, industria tradizional txikietan enplegaturikoak. Gremioak desagertu egin ziren arren, euren antolamendua Erregimen Zaharrekoa izaten jarraitu zuen XIX. mendearen lehenengo erdian zehar.

Industria garrantzitsurik ez zen XX. mendearen bigarren erdia arte garatu eta darabilgun garaian sorturikoak ez zuen kondizio bat ere onik eskaintzen. Mende aldaketaren garaian adibidez, langileek 12 ordu luzez egiten zuten lan, zikinak eta batere seguruak ez ziren lantegietan. Soldata 3,45 pezetakoa zen eta familia baten eguneko gastua gutxi gorabehera 3,67koa. Derrigorrez, emazte eta umeek lagundu behar izaten zuten famili aurrekontuaren osaketan.

Klase ertain eta oligarkien etxe zerbitzurako ere gasteiztar askok egiten zuten lan, 1.317 pertsona 1867an, populazioaren %6,5 (gehienak emakumeak). Normalean, neskame eta umezain aritzen ziren.

Hiri txikia izaki, nekazal jarduerak oso garrantzitsua izaten jarraitzen zuen. Hau ere modernizatu gabeko alorra zen guztiz. 1860.era arte ez zitzaion Gasteiz inguruetan edo eta Araba guztian erromatar goldea erabiltzeari utzi eta belarri goldearekin lan egiteari ekin.

## HIRI DESENKANTATUA

Honela deskribatu zuen Ricardo Becerro de Bengoak mende aldaketako Gasteiz.

Elizak eta militarrek edozein arlotan eman zitekeen modernizazioa zapuztu egin zuten, gizarte tradizional eta atzerakoia bultzatuaz:

- Gizartea moralki eta ideologikoki guztiz kontrolatua zuten.
- Ez zuten industria moderno bat garatzeko interesik erakutsi eta euren ingurukoa zen ekonomia jarduera ia guztia. Trenbidearen iritsierari (1862) ez zioten interes pertsonalengatik batere etekinik atera eta Gasteiz industri zirkuituetatik kanpo utzi zuten, Bilbo ikaragarri garatzen ari zen bitartean. Trenbideak gainera, klaseen arteko desberdintasunak garatu zituela esan dezakegu. Hiriaren hegoalderako handitzea ekarri zuen eta ondorioz, lur horiekin espekulazioa. Birbalaraturiko hegoaldeko lur horietara alde egin zuten Gasteizko eliteek, alde zaharra alboratua geratu zelarik.

60 eta 70. hamarkadetako mugimendu kulturala bertan bera utzi zuten.

© Unai Gartzia, historian lizentziatua

**EL BAR Kutxi** e  
g  
u  
n  
e  
k  
o

**DIBUtec**

Paper Berzeziak  
Arte Ederretarabko Materiala  
Ink Jet original eta birziklatuak  
Bulogo Materiala  
Enkuedernaziook  
Plastifikaziook  
Kopiatuak  
Kamiseten Estampaketak

**bazkarprint**  
Inprimaria / Inprimategia  
Ebozein inprimaketak  
mota.

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ • INPRIMATEGIA •

**LA RIOJANA**  
jatetxea

**on egin!**

bokatak,  
pintxoak,  
kazulatuak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39




INGRID ARNAL, kamiseta diseinatzailea

**“Guztiak dira ezberdinak, bat bera ez dut errepikatzen”**

ingrid

INGRID ARNAL GASTEIZTARRAK DENBORA GUTXI DARAMA DISEINUAREN MUNDUAN, BAINA DAGOENEO BERAK KUSTOMIZATURIKO KAMISETAK SALGAI DAUDE L’CORP IZENENKO ALDABE PLAZAREN INGURUAN KOKATURIKO DENDAN. “LAGUN BATEK PROPOSATU ZIDAN ETA ORAIN DELA GUTXI HASI NAIZENEZ NIRE ARROPA DISEINATZEN, HASIERAN ARRAROA EGITEN ZITZ AidAN, BAI ETA LOTS A EMAN ERE, NIK EGINDAKOA SALGAI JARTZEA”, DIO 23 URTEKO NESKA HONEK. INGRIDEK DURANA IKASTOLAN IKASKETAK BUKATU ETA GERO MERKATARITZA ETA ADMINISTRARITZA MODULUAK EGIN ZITUEN; EGUN ALDIZ, BILBOKO DISEINU ESKOLA BATEAN DIHARDU.

arnal



**-BESTELAKO IKASKETAK EGIN ETA GERO ORAINGOAN MODARA BIDERATU DUZU ZURE ASMOA. ZERK ERAGINDA?**

Niri betidanik gustatu zait diseinua eta gainera etxean nolabait arroparen mundua beti gertutik bizi izan dut, amak arropa arloan lan egiten du eta. Akaso hain gertuko zerbaiten modura ikustean, ez nuen nire burua mundu horretan imajinatzen, baina azkenean animatu naiz eta egia esateko oso gustura nabil. Gainera aurten Bilboko diseinu eskola batean hasi banaiz ere, iaz Donostiako beste batean egin nuen lehendabiziko saialdia; gauza da ez zitzaidala gehiegi

gustatu eta aldatzea erabaki nuen.

**-ORAIN ARTE EGINDAKO GEHIENA KAMISETAK DIRA. NORBAITENGAN OINARRITZEN ZARA KAMISETA EREDU DESBERDINAK SORTZERAKOAN?**

Orain arte kamisetak egin ditut batez ere, poltsaren bat ere egin izan dut, baina gehiago frogatu moduan. Kamisetak diseinatzeko orduan kontuan hartu behar dugu ez ditudala nik josten, hori orain eskolan ikasten ari naiz. Edozein kamiseta erosi eta erabiliko duen pertsonaren estiloan oinarritzen naiz diseinatzeko orduan. Batez ere, eta orain hasi berria naizenez, saldu bainoago lagunei eta senideei oparitzen dizkiet.

Hortaz, moztu eta tatxuelak edo inperdibleak jartzen dizkiet, kolore gehiago edo gutxiago, betiere pertsonaren estiloa, janzteko modua eta nortasuna kontuan hartuta. Enkarguz balira bezala egiten ditut, lagunei, amari, ahizpari, lehengusuari... guztiak dira ezberdinak, bat bera ez dut errepikatzen.

**-BAINA ZURE DISEINUAK SALGAI DIRA GASTEIZKO DENDA BATEAN, EZTA?**

Bai, horrela da. Cintia laguna dut eta berak proposatu zidan bere dendan (L’Corp) nire kamiseta batzuk saltzea. Egia esateko lotsa pixka bat ere ematen dit prezioa eta guzti jartzeak... Azkenean 15



euroan saltzea erabaki genuen, batez ere eskuz eginda zirelako, eksklusiboak, erabilitako materiala eta neurri batean behar izandako materialaren arabera.

**-LEHENDABIZIKO ALDIA DA ZUK EGINDAKO ARROPA MERKATURATZEN DUZULA?**

Beno, baietz esan daiteke, halere anekdota bezala edo, aurten mutil-lagunak eta biok San Ferminetan postutxo bat jarri genuen kamisetak saltzeko. Diseinuak nireak ziren arren marrazkiak mutil-lagunarenak ziren.

Egia esateko, kamisetak egiten lehenago jarri ez banaiz izan da neurri batean margotzen ez nekielako. Orain ikasten ari naizela poz-pezik nago.

**-ETORKIZUNEAN ZURE MARKA PROPIOA IZATEA GUSTATUKO LITZAIZUKE?**

Bai noski! Eskolan ari garen guztioi gustatuko litzaigukeen zerbait da. Zaila ikusten dut baina tira... mementoz ikasten ari naiz eta oso ondo sentiarazten nau ikasitakoa egingarri bilakatzeak.

# Haizerako jaio ziren

testua & argazkia: xabier errasti  
itzulpena: geu aldizkaria

Haizea han jaio zen, ordura arte ez zituen sekula zuhaitzak orraztu, ez eta mendiak moldeatu ere, ordura arte inoiz ez zuen lurrean hareazko hodeirik eta zirimolarik eratu, ordura arte ez zen sekula ere basa-zaldien bizkar gainean zamalkatu, ezta arrano askeen hegalen gainean planeatu ere; paperezko kometak hegan egiten zituen umerik ere ez zegoen.

Lehen gizon-emakume horiek, ezerezetik ateratakoek, hutsa beteko zuketen. Laku, ibaia edota akaso beren abereen egarria leunduko zuten iturrien bila ariko ziratekeen. Mugagabeak ziren egunak; eta uxoak beren gauetako izarrak; bitxiak atsedetik gabe noraezean ibiltzera behartzen zituzten erritmo teluriko horiek.

Xirula eta tronboien modura jotzen zuten ahotsak entzun ohi zituzten, beren buruetan oihartzun gorrak sortzen zituztenak, eta urrunetik haizeak berriz ere jotzen zuenean, markatutako aztarnei begira, mendiak sortu ziren bere altzoan, elur iraunkorrek eta ortzadar-koloroa hartu zuten eguzkiek buru emanda.

Lautada handi bat euren begirada harrizuen aurrean



zabaltzen ari zen zeruertz amaigabearen gainean, ikusi bezain laster eurek orlegi deitu zioten kolorekoa; eta ixiltasun hura, ia instant batean gatz-euri batek urratua.

Beren ametsa belar fresko eta kristal ferekazko dunen gainean lokartu zuten. Haizeari esker argia urratu zuten. HAIZErako jaio ziren.

## Araba bixotzian

Jon Zubiatur



Bertakoari so!



ERLANTZ

URTASUNen txokoa

1000. urteko euskaldunak

Antso Nagusiak ederki erakusten du, goi mailako politika arloan behinik behin, 1000. urtearen inguruan Nafarroan gertatu zena, hots, oraindik Iruñeko Erresuma deitzen ohi zen eremu politikoan, non Arabak sehaska baitzuen. Bere agintaldian, halaber, indarrean ziren inguruko bertze esparru politikoetako mugak zehaztu ziren.

Urrun geratzen ziren, garai hartan, euskal erresumaren sorreran eragin handia ukan zuten gertakariak, Orreagako kasu. Europa kristauaren sistema politikoaren garaipenarekin baterat, Europako Mendebaldeko Erdi Aroko eredu sozioekonomikoak, urratsez urrats, gero eta tarte handiagoa irabazi zuen euskaldunen lurraldeetan. Halere, testuinguru historiko hartan, gure arbasoek, agiritan azaltzen zaiun *Wasconiako* errautsetatik, Iruñeko erresuma tipia eraiki ahal izan zuten, frankoen lurralde soil bihurtze prozesua ekidinez.

Nola bizi zen, baina, bertoko jende xumea? Hizkuntza, erlijio ohiturak, ehorzketak, sinesmenak, erabat aldrebesturik, oro nahita nahasturik iritsi zaizkigun mitoak, arabar musulmanak, ekonomia kontuak, ezkontzak, bon, bai zera, erran nahi baita garai hartako harremanak, ez egun ezagutzen dugun ohiko ezkontza, eta are gutiago elizaren bitartez...

Ilhardespena

Azaroaren 17an, 20.00etan.

Betolatza aretoan

(Montehermoso kulturunea)

DIOCESANAS-MENDIZORROTZA OSTALARITZA ESKOLA

Arroz gorrituzko tinbala, gainerretako otarrainskekin eta txingarreztatutako barazkiekin

Prestakuntza

⇒ Barazkiak garbitu eta puntu-puntu egosi; ondoren, ontzi batean ura eta izotz zatiek jarrita, bertan freskatuko dira eta, gero, xukatu egingo dira.

⇒ Otarrainxkei burua kendu ondoren, zuritu eta Baratxuri olioarekin igurtziko dira, segundo batzuetan salteatzeko; ondoren, gatza botako zaie eta brandyarekin flanbeatuko dira, saltsa loditzen utziko da eta gurina erantsiko zaio; ondoren, sueztitu egingo da segundo batzuetan eta plater batera aterako dira; platera estalita utziko dugu.

Saltsa:

⇒ Otarrainxkak salteatzeko erabili dugun zartagin berean otarrainxka buruak sueztituko dira. Xukatu eta almerizean ondo xehatuko dira; ondoren, berriro zartaginerat botako dira eta arrain saldarekin bustiko dira. Segidan, garni buketa erantsiko zaio eta, poliki-poliki, minutu batzuetan egiten utziko da; erdira laburtzen denean, gatza botako zaio berriro, iragazi egingo da eta ondo aterako zaie zukua buruei. Laranja zukua eta itsaskien zukua bateratuko dira, eta su motelean jarrita, pixkana egosten utziko da, kontzentratzeko; ondoren, sutatik kenduko da eta gurinarekin lodituko da. Bero-bero gordeko dugu, gero erabiltzeko.

Arroz gisatua:

⇒ Baratxuri olioaren isuriko da eltze batera eta bertan su motelean arroz sueztituko da segundo batzuetan. Gatza eta limoi pixka bat erantsi ondoren, salda irakiten botako zaio; azafrai txigortua (labana batez xehatua) eta ongailu horia erantsiko zaizkio. Estali eta labean sartuko da, 180°C-ra, 18 minutuz bertan edukiko da eta, labetik atera ondoren, segundo batzuetan bertan utziko dugu.

Sabayon gazia:

⇒ Su ondoan arrautza gorringoak irabiatuko dira eta harro-harro utziko dira (bitartean, esnegaina irakinaraziko dugu eta kontzentratzen utziko dugu); hau arrautza gorringoei erantsiko zaie, irabiatzean utzi gabe eta, azkenean, bisquet saltsa pixka bat erantsiko zaio. Sutatik kanpo utziko dugu, gero erabiltzeko.

Barazkiak:

⇒ Falta diren barazkiak egosiko ditugu, puntu-puntu atezaz, eta izotz zatiekiko uretan sartuko ditugu. Lehortu eta ebaki egingo ditugu, gari-zainzuriak zeharka eta azenario xerrak juliana erara; baratxuri oliotan salteatuko dira, gatza botako zaie eta perrexilaz hautseztatuko dira. Plater batean utziko ditugu, gerorako.

LAU LAGUNTZAKO OSAGIAK:

Galasparra arroza (bonba)	100g.
Baratxuri olio	2 c.s.
Limoi ura	1 c.c.
Itsas gatza	1 c.c.
Fumeta	2 dl.
Azafrai izpi txigortua	8 u.
Ongailu horia	apur bat
Gurina	15 g.

BARAZKIAK:

Gari-zainzuriak puntu-puntu	4 u.
Babak, zuritu eta ur irakinetan eginda	80 g.
Azenario xerra samurrak	80 g.
Apioa, bastoi mehetan	80 g.
Baratxuri olio	2 c.s.
Gatz fina	apur bat
Perrexila, xehatu berria	1 c.c.

OTARRAINSKAK SALTEATUTA:

Otarrainxkak zatikatuta	12 u.
Baratxuri olio	1 c.s.
Gurina	8 g.
Itsas gatza	apur bat
Brandya	1 c.s.

SABAYON GAZIA:

Arrautza gorringoak	3 u.
Esnegaina	1 dl.
Bisquet saltsa	1 c.s.

SALSA:

Laranja zukua	1 dl.
Arrain fumeta	2 dl.
Otarrainxka buruak	8 u.
Oliba olio	1 c.s.
Garni buketa limoi azalarekin	1 u.

⇒ Zartagin bera erabiliz eta bero-bero dugula, olio igurtziko dugu eta arroz txigortuko dugu, plantxa gainean edo su txikitari poliki-poliki eraginez, eta gurina erantsiko zaio pixkana. Gerorako utziko da.

Amaiera

⇒ 6x3x3 cm-ko lau eraztun osatuko dira arrozarekin, ondo sakatuko da, otarrainxkak erditik ebakiko dira, luzetara, eta arroz terrinarene gainean ezarriko dira. Ondoren, sabayon saltsarekin apainduko dira eta labean gratinatzen utziko dira.

⇒ Plater bakoitzean, albo batean, arroz terrina ezarriko da kontu handiz, ondoan berduren kordioa duela, bisquet saltsarekin marra finak eraginez eta plateraren argiuneetan tipulina ondo xehatuta ezarritik.



## Geurekin mendira gazte taldea

DAGOENEO GEUREKIN MENDIRA GAZTE TALDE BERRIAK BERE LEHENDABIZIKO IRTEERA EGIN DU. IRAILAREN 26A IZAN ZEN GAZTEAK, MENDIA ETA EUSKARA BILTZEN DITUEN EGITASMOA ABIAN JARRI ZEN EGUNA. UDAKO AZKEN EGUNAK AGURTZEKO ETA UDAZKENAK DAKARREN IKASTURTERI ONGIETORRIA EGITEKO GEUREKIN MENDIRA GAZTE TALDEAK LAGRAN-ERCILLA-PALOMARES-ERA EGIN ZUEN TXANGOA. ESPERIENTZIA POLITA ETA DIBERTIGARRIA IZAN ZEN HURA ETA HURRENGOAN ZU ERE EGON ZAITEZEN HORRELA KONTATU DIGUTE GURE MENDIZALEEK.

## Etor zaitez gurekin!

Uda aurretik gogotsu eta langile aritu dira GEU Elkartearen proiektu berri honen inguruan bildu diren hainbat gazte aurtengo egitaraua biltzen. Lehendabiziko txangoa irailean izan zen eta oraindik ere oporretatik bueltan hainbat lagun egon ez arren talde polita osatu zuten Lagran-Ercilla-Palomares-era gerturatu zen gazte multzoa. "Beldurrez agertu ginen autobus geltokira, lehendabiziko txango hau antolatu genuen data zela-eta, ez baikenekien zenbat animatuko ziren mendira etortzera. Egia esateko nabaria zen gutariko asko oporretan geundela

oraindik, batzuek alde aurretik abisatu zuten ezin izango zirela etorri, eta azkenean ezagun gutxi ginen han agertutakoak. Halere, laster egin genituen lagun berriak", diote gazteek.

Eguna ibilbidea aldatuko zuen pasarte batekin hasi zen. "Primerako eguraldia egin zigun eta poz-pozik abiatu behar genuen bidetik, baina orduan ehiztarien basurde uxaldi batekin topo egin eta mendian barrera argidunik gabe joateak arriskua ekar zezakeela-eta, beste leku batetik jarraitzea erabaki genuen orduan", aipatzen dute. "Ibilbide

atsegina egin genuen beste bide hartatik ere. Masustak jasotzeaz gain, zuhaitzen eta landareen izenak azaltzen zituzten kartelak aurkitu genituen, baita ikaztobi bat egiteko modua azaltzen zuen beste informazio-txartel bat ere", nabarmentzen dute. Aurrera egin ahala beste ustekabe atsegina bat jaso zuten gazteek: "Peña del Castillo-ra bideratu genuen gure martxa eta orduan Soraluzeko mendi talde batekin egin genuen topo. 50 bat laguneko taldea zen eta beraiekin gora egitea erabaki genuen. Oso ondo konpondu ginen eta herrira jaistean futboleant aritu ginen Soraluze eta Lagraneko umeekin, dibertigarria benetan".

Geurekin Mendira Gazte Taldeak, aile hau zure etxean jaso orduko, bigarren txangoa egina izango du (Berriain-San Donatora). Hirugarren bat ere egongo da eta horretan zu ere anima zaitezke. Talde berri honen aburuz, "mendiak, gazteek eta euskarak lotura berezia dute hemen Euskal Herrian. Jende gazte ugari bakarrik doa mendira pentsatzen duetako mendia gustuko duen lagunik ez dagoelako; hori komunikazio falta besterik ez da, izan ere, galdetuz gero asko bat baikatuz zaletasun honetan. Kasu honetan Soraluze herri txikiko mendi taldean 50 mendizale euskaldun biltzea lortu badute, nola ez dugu ba Gasteiz bezalako herri handi batean beste hainbat euskaldun bilduko?". Gaztea bazara (edota sentitzen bazara), anima zaitez eta frogatu zerbait ezberdina, etor zaitez Geurekin Mendira. Zeru ere talde hone eragile izan zaitezke!


III. IRTEERA

**ARATZ** AZAROAK 28

Irteera: 8.30ean autobus-geltokian

Informazioa: 945222153 (GEU elkartearen Josune)


Fundación Sancho el Sabio Fundazioa





**GEUREKIN  
MENDIRA**

AZAROAREN 21EAN  
DULANTZ  
(1239 M)  
(\*ARRATSALDEAN  
ITZULTZEKOA)  
ARDURADUNA:  
IÑAKI 945146296  
IRTEERA:  
GOIZEKO 9.00ETAN  
LOVAINAN



**DIAPORAMA**

GEU aldizkaria & elkartearen ekimenez  
AZAROAK 23, asteartea  
EUSKAL HERRIA. BAKARTI BATEN BEGIRADA  
RUBEN ARGOTE argazkizalearen eskutik  
20.30ean PARRAL tabernan



**KULTUR ERROTA**

AZAROAK 2 (asteartea)  
Ipuin kontalaria: ANTON IRUSTA  
AZAROAK 30 (asteartea)  
Kontzertua: MUSKER OKER  
reggae, rocka, bossa, popa, funkya,  
jazza  
20.30ean, PARRAL tabernan

**KANGEUROAK**

Zerrenda honetan agertu nahiez gero eman zure izena eta telefonoa eta zehaztu zure ordutegia: 945222153 / geugaste@grn.es  
Aldi berean, zerrendan agertu nahi ez baduzu, abisua eman.  
AUKERAK

• Ordu-tegi guztiak • Goizez • Arratsaldez

Nerea. 658733934

• Gaez

Nerea. 658733934


• Asteburuak

Nagore. 945281124

• Gau batez (afariak, ezkontzak,...)

**HITZALDI MULTIMEDIA**

GEU aldizkaria & GEU elkarte & Nabarralde  
AZAROAK 17, ASTEAZKENA  
1000. URTEKO EUSKALDUNAK  
ERLANTZ URTASUN historiagilearen eskutik  
Montehermoso Kulturunean, Betolatz aaretoan, 20.00etan



AAAAH...  
OIHARTZUNAREN  
JOKOA: BERRIKETA  
ASKO, BAINO NON  
DAGO MAMIA?

ESKASOLA

# HAR EZAZU EUSKARAREKIKO KONPROMISOA

ARABA OSOKO EUSKARA HUTSEZKO

HILABETEKARI BAKARRA,  
ZAINDU DEZAGUN, BADA!

# >GEU

GASTEIZKO  
EUSKALDUNON  
ALDIZKARIA

## 18 EURO

URTE OSOAN

945 222 153

[geugaste@grn.es](mailto:geugaste@grn.es)

Bidal ezazu  
Pedro Asua kalea, 2. -3.a  
01008 GASTEIZ  
helbidera



# IZAN ZAITEZ GEU ALDIZKARIKO HARPIDEDUN!!

izena

abizenak

helbidea

telefonoa

GEU ALDIZKARIA-GEU ELKARTEA & NABARRALDE ekimenaren eskutik



**HITZALDIAK-2004**

**MONTEHERMOSO KULTURUNEAN  
BETOLATZA ARETOAN**

**20.00etan**

**AZAROAK 17, ASTEAZKENA**

HITZALDI MULTIMEDIA.

**ERLANTZ URTASUN:**

**“1000. URTEKO EUSKALDUNAK”**

**ABENDUAK 14, ASTEARTEA**

HERRI KIROLA & SOLASALDIA.

**IÑAKI PERURENA:**

**“50 ALTXALDI, 50 GALDERA”**

[www.nabarralde.com](http://www.nabarralde.com) / [info@nabarralde.com](mailto:info@nabarralde.com) / [geugaste@grn.es](mailto:geugaste@grn.es) / [geuelkartea@grn.es](mailto:geuelkartea@grn.es)

Obra Social

Caja Vital  Vital Kutxa

Gizarte-Ekintza